

GAZTEAK, EMANTZIPAZIOA ETA ETXEBIZITZA-PREMIA EUSKADIN

2023



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

ONGIZATE, GAZTERIA ETA
ERRONKA DEMOGRAFIKOAREN SAILA
DEPARTAMENTO DE BIENESTAR,
JUVENTUD Y RETO DEMOGRÁFICO



GAZTEEN EUSKAL
BEHATOKIA OBSERVATORIO VASCO
DE LA JUVENTUD

GAZTEAK, EMANTZIPAZIOA ETA ETXEBIZITZA-PREMIA EUSKADIN

—
2023



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

ONGIZATE, GAZTERIA ETA
ERRONKA DEMOGRAFIKOAREN SAILA
DEPARTAMENTO DE BIENESTAR,
JUVENTUD Y RETO DEMOGRÁFICO



GAZTEEN EUSKAL
BEHATOKIA OBSERVATORIO VASCO
DE LA JUVENTUD

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2024

Lan honen bibliografia-erregistroa Eusko Jaurlaritzako Liburutegi Nagusiaren katalogoan aurki daiteke: <https://www.katalogoak.euskadi.eus/katalogobateratua>

Edizioa:

Uztaila 2024

Internet:

www.euskadi.eus

Argitaratzailea:

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco
Donostia-San Sebastián, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz

Egilea:

Gazteen Euskal Behatokia

Diseinua eta maketazioa:

Gurenet Teknologia

Itzulpena:

Observatorio Vasco de la Juventud

ISSN: 3020-8203

© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa
Lehendakaritza
Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco
Presidencia



Dokumentu honen edukiak, oraingo edizioan, litzentzia honetan argitaratu dira: Aitortu – Ez merkataritzarako – Lan eratorririk gabe 4.0 Unported (http://creativecommons.org/licenses/by-nc-nd/3.0/deed.es_ES)

Aurkibidea

SARRERA	6
METODOLOGIA	7
1. 18 ETA 34 URTE BITARTEKO GAZTEEN EGOERA, EMANTZIPAZIOARI DAGOKIONEZ	8
1.1. Emantzipatuta dauden gazteen kopurua	8
1.2. Emantzipatutako gazteen bizikidetzeta-moduak	9
2. EMANTZIPATUTAKO GAZTEEN ETXEBIZITZEN EDUKITZE-ERREGIMENA ETA ETXEBIZITZAKO GASTU EKONOMIKOA	11
2.1. Etxebizitzen edukitze-erregimena.....	11
2.2. Etxebizitzako hileko gastua	14
2.3. Diru-sarrereren eta etxebizitzako gastuen arteko erlazioa.....	17
2.4. Diru-laguntzak eta babestutako etxebizitza	19
3. EMANTZIPATUTAKO GAZTEAK BIZI DIREN ETXEBIZITZEN ETA INGURUNEAREN EZAUGARRIAK	21
3.1. Emantzipatutako gazteak bizi diren etxebizitzen ezaugarri fisikoak	21
3.2. Emantzipatutako gazteek beren etxebizitzekin sentitzen duten gogobetetasuna.....	27
3.3. Emantzipatutako gazteak bizi diren ingurunearen edo auzoaren arazoak	28
3.4. Emantzipatutako gazteek bizi diren ingurunearekin edo auzoarekin sentitzen duten gogobetetasuna.....	30
4. EMANTZIPATU GABEKO GAZTEEN ETXEBIZITZA-PREMIA	31
4.1. Aurretik beren kontura bizi izanaren eskarmentua	31
4.2. Emantzipatu gabe dauden gazteek adierazitako etxebizitza-premia.....	32
4.3. EAEn etxebizitza-premia duten emantzipatu gabeko gazteen lehentasunak.....	35
4.4. EAEn etxebizitza-premia duten emantzipatu gabeko gazteen emantzipazio aurreikuspenak eta diru-sarrereren baldintzatzailea.....	38
5. EAE-N ETXEBIZITZA-PREMIA DUTEN EMANTZIPATU GABEKO GAZTEEN IRITZIAK ETA JARRERAK ETXEBIZITZAREN ARAZOAREN KONPONBIDEEI DAGOKIENEZ	43
5.1. Etxebizitzaren arazoa konpontzeko neurriak.....	43
5.2. Etxebide	47
6. EMAITZARIK AIPAGARRIENAK	50
ONDORIOAK	54

SARRERA

Gazteen Euskal Behatokia sortzeko Aginduan honako hau ezarri zen: "Gazteen Euskal Behatokia baliabide egokia da gazteen egoera eta bilakaera edozein unetan eta ikuspegi guztietatik aztertzeko. Horrela, Euskadin gazteriaz arduratzen diren administrazio publikoen jokabidea ebaluatu ahal izango da; batez ere, erkidegoko administrazioarena"^[1].

Geroago, 2022ko martxoaren 10eko 2/2022 Legeak, Gazteriarenak, bere helburuen artean hauxe zuen: "Gazteen autonomia eta emantzipazioa posible egingo duten baldintzak sorraraztea, beren bizitza-proiektu individual eta kolektiboa eraiki ahal izan dezaten", eta, era berean, emantzipatzeko eskubidea aitortu zuen lege honek ^[2].

Urtebete geroago, 2023an, Gazteen emantzipazioa bultzatzeko 2030erako Euskal Estrategia jarri zen abian, matxoaren 21ean onartu zena^[3].

Beraz, bereziki egokia da gazteen emantzipazioari eta etxebizitza-premiari buruzko azterketa egitea.

Horretarako, Etxebizitza Beharrei eta Eskariari buruzko 2023ko Inkestaren emaitzetan oinarritu gara. Inkesta hori Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saileko Estatistika Organo Espezifikoak egiten du aldizka, eta 18 eta 34 urte bitarteko gazteei buruzko datuak eman dizkio Gazteen Euskal Behatokiari, azken honek azter ditzan eta txosten hau idatz dezan.

Txosten honetan, datu orokor batzuk aztertzen dira, hala nola emantzipatutako pertsonen ehunekoa edo diru-sarrera propioak dituztenena, baina baita gai zehatzak ere, hala nola emantzipatutako gazteak bizi diren etxebizitzaren ezaugarriak, etxebizitza behar duten emantzipatu gabeko gazteek dituzten zailtasunak edo etxebizitza-politikari buruz dituzten lehentasunak eta iritziak.

Gainera, 2023ko datuak Etxebizitza Beharrei eta Eskariari buruzko Inkestaren aurreko edizioetako datuekin alderatzen dira, zehazki 2015, 2017, 2019 eta 2021ean bildutakoekin.

Era berean, sexuaren, adinaren, lurraldearen eta abarren arabera bereizita aurkezten dira, alde esanguratsuak badaude eta emaitzak estatistika-zorroztasunez emateko adinako lagin zabalak badaude.

Txosten honen helburua, beraz, Euskadiko gazteek emantzipazioari dagokionez eta, zehazkiago, emantzipatu gabeko gazteen etxebizitza-premiari dagokionez bizi duten egoeraren ikuspegi orokorra ematea da.

[1] AGINDUA, 1999ko abenduaren 10ekoa, Kultura sailburuarena, Gazteen Euskal Behatokia sortu eta haren eginkizunak zehazten dituen [linean]. Hemen eskuragarri: https://www.gazteukera.euskadi.eus/contenidos/informacion/ovj_que_es_2019/es_2890/adjuntos/behatokia_sortzeko_agindua.pdf [Kontsulta: 2024/04/09]

[2] 2/2022 LEGEA, martxoaren 10ekoa, Gazteriarena [linean]. Hemen eskuragarri: [gazteria_legea_e.pdf \(euskadi.eus\)](#) [Kontsulta: 2024/04/09]

[3] . I. Gazteen emantzipazioa bultzatzeko 2030 Euskal Estrategia. Análisis-esparrua. [linean]. Hemen eskuragarri: [Estrategia_emancipacion_juvenil_Doc_I_EUS.pdf \(euskadi.eus\)](#) [Kontsulta: 2024/04/09]

II. Gazteen emantzipazioa bultzatzeko 2030 Euskal Estrategia. Esparru operatiboa. [linean]. Hemen eskuragarri: [Estrategia_emancipacion_juvenil_Doc_II_EUS.pdf \(euskadi.eus\)](#) [Kontsulta: 2024/04/09]

METODOLOGIA

Txosten honetan aztertutako datuak Etxebizitza Beharrei eta Eskariari buruzko Inkestakoak dira. Estatistika-eragiketa ofiziala da, eta honako helburu hau du: "etxebizitza-premiaren bilakaera ezagutzea, lehen etxebizitza eskuratzeari, etxebizitza aldatzeari eta birgaitzeari dagokienez, eta etxebizitzaren egoera EAEn"^[4].

Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saileko Estatistika Organo Espezifikoak bi urtean behin familiei egiten dien inkesta da. Alde batetik, familia-galdetegi bat dago, etxeko kideen egoeraz eta bizi diren etxebizitzaren ezaugarriez galdetzen duena, eta, bestetik, bi galdetegi indibidual, bata Euskal Autonomia Erkidegoan etxebizitza-premia eta diru-sarrera propioak dituzten pertsonentzat, eta bestea etxebizitza-premia duten baina diru-sarrera propiorik ez duten pertsonentzat. Horri esker, hainbat egoerari buruzko datuak eskura daitezke.

Familia-galdetegia betetzeko, 4.000 etxebizitzako gutxieneko lagina egitea ezarri da. Lagina ausaz aukeratu da Eustaten Biztanleen Erregistro Estatistikotik eta Etxebizitzaren Direktoriotik, laginketa estratifikatu baten bidez, lurralde historikoaren eta udalerrien tamainaren arabera (hiriburuak, 20.000 eta 100.000 biztanle bitarteko udalerriak eta 20.000 biztanle baino gutxiagokoak). Banakako galdetegia betetzeko, familien laginean hautatutako etxebizitzetan bizi diren emantzipatu gabeko eta etxebizitza-premia duten 18 eta 44 urte bitarteko pertsona guztiak elkarrizketatu dira, eta, kasu horretan, familia-etxebizitzaren laginean hautatutako etxeko unitateetan bizi diren 1.200 pertsonako gutxieneko lagin bat egitea ezarri da.

2023ko edizioan, inkesta kanal anitzekoa izan zen (telefonoz, etxetik eta web bidez), eta inkestak ekainaren 1etik irailaren 21era bitartean egin ziren. Denbora horretan, 1.972 inkesta egin zitzaizkien 18 eta 34 urte bitarteko pertsonari, honela banatuta: 467 pertsona emantzipatuak ziren eta 1.505 ez emantzipatuak; azken horietatik 504k Euskadin etxebizitza-premia zutela zioten.

1.972 pertsonako lagin horri egotz dakiokeen lagin-errorea + % 2,2 da, % 95eko konfiantza-mailarako eta gutzitako ausazkotasunaren kasuan ($p = q = 0,5$). Emantzipatutako gazteen kasuan, lagin-akatsa + % 4,5 da, eta emantzipatu gabeko gazteen kasuan + % 2,5 (+ % 4,3, etxebizitza-premia duten emantzipatu gabeko gazteen kasuan).

Gainera, 1.972 inkesta horiek honela banatu dira sexuaren, adinaren eta lurraldearen arabera: 955 inkesta emakumei egin zaizkie eta 1.017 gizonei; 1.006 inkestatu 18-24 urtekoak ziren, 513 inkestatu 25-29 urtekoak eta 453 inkestatu 30-34 urtekoak; eta, azkenik, 438 inkesta Araban egin dira, 799 Bizkaian eta 735 Gipuzkoan.

Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saileko Estatistika Organo Espezifikoak Gazteen Euskal Behatokiari helarazi dion datu-baseak 18 eta 34 urte bitarteko pertsona horiek galdetegi bakoitzean emandako erantzunak biltzen ditu, baita datuak haztatzeko eta milakora igotzeko aldagaia ere.

Gazteen Euskal Behatokiari erantzun horiek aztertu ditu eta txosten hau idatzi du, eta, batzuetan, emaitzak beste estatistika-iturri ofizial batzuetako datuekin alderatu ditu, gazteen egoera Euskadiko biztanleria orokorrarekin alderatzeko.

Biztanleria gaztea osatzen duten kolektiboen arteko aldeak islatzeko, datuak hainbat aldagairen arabera bereizten dira, hala nola sexua, adina, bizi diren lurralde historikoa, nazionalitatea eta abar. Hala ere, ezin da aldagai horien intersektionalitatearen eragina aztertu, ateratzen den kategoria bakoitzeko pertsona-kopuruak ez bailuke emaitzen fidagarritasun estatistikoa bermatuko.

Datuen iturria:

Eusko Jaurlaritzaren Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saileko 2023ko Etxebizitza Beharrei eta Eskariari buruzko Inkesta.

18 eta 34 urte bitarteko pertsonari egindako inkesta kopurua:

1.972 (467 emantzipatutako pertsonari eta 1.505 emantzipatu gabekoei).

Inkestak egin diren aldia:

2023ko ekainaren 1etik irailaren 21era bitartean.

Datuak aztertzea eta txostena idaztea:

Eusko Jaurlaritzaren Lehendakariak Gazteen Euskal Behatokia.

[4] 2023ko Etxebizitza beharren eta -eskariaren inkestaren galdetegiaren [linean]. Hemen eskuragarri: https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/ovv_personas35/eu_ovv_meto/adjuntos/Cuestionario_ENDV2023_Familiar_EUS.pdf [Kontsulta: 2024/04/09]

1. 18 ETA 34 URTE BITARTEKO GAZTEEN EGOERA, EMANTZIPAZIOARI DAGOKIONEZ

1.1. Emantzipatuta dauden gazteen kopurua

2023ko Etxebizitza Beharrei eta Eskariari buruzko Inkestan jasotako datuen arabera, Euskal Autonomia Erkidegoko 18 eta 34 urte bitarteko biztanleriaren % 31,0 emantzipatuta dago. Emantzipatutzat hartzen dira etxebizitzaren jabeak, edo, hala ez badira, gurasoekin edo beste senide batzuekin, hala nola anai-arrebekin, aitona-amonekin edo osaba-izebekin, bizi ez direla diotenak^[5].


Adin-tarte horretako (18-34 urte) emakume emantzipatuen ehunekoa handiagoa da gizon emantzipatuen baino (% 34,4 eta % 26,0, hurrenez hurren).

Baina alde handiena adinak markatzen du. 25 urte bete aurretik, hau da, 18 eta 24 urte bitartean, gazteen % 7,5 baino ez dago emantzipatuta; 25 eta 29 urte bitartean, % 30,6; eta 30 eta 34 urte bitartean, jada, gehienak emantzipatuta daude; zehazki, % 67,6. Izan ere, azterlan honetan jasotako gazte emantzipatuen batez besteko adina 29,78 urtekoa da, hau da, ia 30 urtekoa.

Ehunekoak ez dira asko aldatzen lurralde historikon arabera; hala ere, aurreko urteetan bezala, ehunekorik txikiena Bizkaiari dagokio (% 28,3); bestalde, Araban gazteen % 33,0 daude emantzipatuta eta Gipuzkoan % 31,8.

Atzerriko nazionalitatea duten gazte gehienak emantzipatuta daude (% 57,3), Espainiako nazionalitatea duten gazteak ez bezala (% 25,4).


1.1.grafikoa
18 eta 34 urte bitarteko pertsona emantzipatuen ehunekoa 2023an, sexuaren, adinaren, lurralde historikoaren eta nazionalitatearen arabera (%)



[5] Txosten honetan aurkezten diren pertsona emantzipatuen ehunekoak Gazteen Euskal Behatokiaren online estatistiketan argitaratutakoak baino txikiagoak dira; horien arabera, 2022an (eskura dagoen azken datua), 18 eta 34 urte bitarteko pertsona emantzipatuen ehunekoa % 34,2 zen. Azken datu horiek Estatistikako Institutu Nazionalaren (INE) Biztanleria Aktiboaren Inkestatik (BAI) datozen datuetan oinarrituta kalkulatuak dira, eta, inkesta batetik datozen datu guztiak bezala, errore-marjina bati lotuta daude.

18 eta 34 urte bitarteko pertsona emantzipatuen ehunekoak behera egin du aurreko urteekin alderatuta, 2015eko % 37,0tik 2023ko % 31,0ra.


1.2. grafikoa
18 eta 34 urte bitarteko pertsona emantzipatuen ehunekoaren bilakaera (%)



1.2. Emantzipatutako gazteen bizikidetzamoduak

Gazteak batez ere bikotekidearekin emantzipatzen dira; hala, 2023an, 35 urtetik beherako hamar pertsona emantzipatutik seik (% 60,8) diote bikotekidearekin (seme-alabekin edo seme-alabarik gabe edo familiako beste pertsona batzuekin) bizi direla^[6].

1.3. grafikoa
18 eta 34 urte bitarteko gazte emantzipatuen bizikidetzamoduak 2023an (%)




Inkesta honen aurreko edizioetan ere bikotearekin emantzipatzea zen aukera nagusia. Gainera, bilakaeraren azterketak erakusten du gehiago izaten direla bakarrik bizi diren 35 urtetik beherako pertsona emantzipatuak, lagunekin bizi direnak baino. Bestalde, beste egoera batean daudenen ehunekoa (seme-alabak dituen guraso bakarra, etxebizitza anai-arrebekin partekatzen duten pertsona emantzipatuak, ardurapean duten gurasoren batekin bizi direnak, etab.) nabarmena da, emantzipazioaren kasuistika askotarikoa baita.

[6] Bikotekidearekin eta, aldi berean, seme-alabak ez diren familiako beste pertsona batzuekin biziitzea ohikoagoa da atzerriko nazionalitatea duten gazte emantzipatuen artean (% 10,2) Espainiako nazionalitatea dutenen artean baino (% 4,0). Lagunekin edo anai-arrebekin biziitzea, bai eta zehaztu gabeko beste bizikidetzamodu batzuk ere, gehiago gertatzen dira atzerriko nazionalitatea duten gazte emantzipatuen artean (% 34,9), Espainiako nazionalitatea dutenen artean baino (% 12,1).

1.4. Gráfikoa

18 eta 34 urte bitarteko gazte emantzipatuen bizikidetzeta-moduen bilakaera (%)



Sexuaren edo adinaren arabera aldeak daude emantzipatzeko moduan. Emakumeak gizonak baino zertxobait gehiago emantzipatzen dira bikotekidearekin, eta gutxiago bakarrik edo lagunekin. Bestalde, adinean aurrera egin ahala, gehiago dira bikotekidearekin eta bakarrik emantzipatzen direnak, eta, aldi berean, lagunekin edo beste senide batzuekin bizi direnen ehunekoa nabarmen jaisten da^[7]. Atzerriko nazionalitatea duten pertsonen Espainiako nazionalitatea dutenek baino gehiago jotzen dute beren bikotekidea ez diren pertsonekin etxebizitza partekatzerara.

1.1. taula

18 eta 34 urte bitarteko gazte emantzipatuen bizikidetzeta-moduak 2023an, sexuaren, adinaren eta nazionalitatearen arabera (%)

(%)	GUZTIRA	Sexua		Adina (urteak)		Nazionalitatea	
		Emakumeak	Gizonak	18-29	30-34	Espainiarra	Atzerritarra
Bikotekidearekin (seme-alabekin edo beste senide batzuekin zein ez)	60,8	63,1	57,6	51,3	66,7	63,1	54,7
Bakarrik	16,1	14,4	18,2	13,9	17,5	20,8	4,0
Lagunekin	7,7	6,7	9,0	14,3	3,5	6,6	10,6
Bestelako egoera (beste senide batzuekin eta abar)	15,4	15,8	15,1	20,6	12,3	9,5	30,8
Guztira	100	100	100	100	100	100	100
(n)	467	262	205	181	286	356	111

[7] Laginean 30 urtetik beherako pertsona emantzipatu gutxi daudenez, adinaren arabera datuak aztertzean, bi kategoriatan banatu ditugu gazteak (18-29 eta 30-34), bi taldeetan emaitzen fidagarritasun estatistikoa bermatzeko behar adina pertsona izateko.

2. EMANTZIPATUTAKO GAZTEEN ETXEBIZITZEN EDUKITZE-ERREGIMENA ETA ETXEBIZITZAKO GASTU EKONOMIKOA


2.1. Etxebizitzen edukitze-erregimena

18 eta 34 urte bitarteko pertsona emantzipatuen erdiak (% 52,4) bere jabetzako (edo berarekin bizi den pertsonaren jabetzako) etxebizitza batean bizi dira, nahiz eta kategoria horrek hainbat egoera biltzen dituen: gehienak etxebizitza hori ordaintzen ari dira (% 32,4), beste % 16,2k guztiz ordainduta dute, eta gainerako % 3,8k herentzian edo dohaintzan jaso dute.

Gutxiago dira alokairuan bizi diren gazte emantzipatuak (% 44,5). Azkenik, emantzipatutako gazteen % 3,1 laga dioten etxebizitzaren batean bizi da.

2.1. Grafikoa

18 eta 34 urte bitarteko gazte emantzipatuen etxebizitzaren edukitze-erregimena 2023an (%)



Alokairuan bizitzea ohikoagoa da gazteen artean gainerako herritarren artean baino. Eustaten Etxebizitzen Udal Estatistikaren arabera, 2023ko urtarrilaren 1ean, alokairua zen Euskadiko familia-etxebizitza nagusien % 14,8ren edukitze-erregimena, baina gehienak (% 83,3) jabetzako etxebizitzak ziren^[8].


Etxebizitza Beharrei eta Eskariari buruzko Inkestaren edizio guztietan ikus daitekeenez, gehiago dira jabetzako etxebizitza batean emantzipatutako gazteak, alokairuan daudenak baino, baina, hala ere, urrun daude biztanleria orokorrean erregistratutako ehunekoetatik; izan ere, gizartean, tradizionalki, jendeak ahal izan duenean jabetzara jotzeko joera izan du.

Gainera, alokairuko edo jabetzako etxebizitza batean emantzipatutako gazteen kopuruak ez dira funtsean aldatu urte batetik bestera.

[8] Iturria: Eustat: Biztanleriaren eta etxebizitzaren errolda. Etxebizitzak. "Euskal AEko familia etxebizitza nagusiak, lurraldeen arabera, edukitze-erregimenari jarraiki (%). 2023/01/01" [linean]. Hemen eskuragarri: [Estatistika taulak: Euskal AEko familia etxebizitza nagusiak, lurraldeen arabera, edukitze-erregimenari jarraiki \(%\). 2023/01/01 \(eustat.eus\)](#) [Kontsulta: 2024/07/22]

2.2. grafikoa

18 eta 34 urte bitarteko gazte emantzipatuen etxebizitzaren edukitze-erregimenaren bilakaera (%)



2023ko datuen arabera, ez dago alde nabarmenik emakume eta gizon gazteen artean alokairuko edo jabetzako etxebizitzetan emantzipatzeari dagokionez. Hala ere, adinak eta nazionalitateak alde handiak erakusten dituzte. 30 urtetik beherako gazte emantzipatu gehienak alokatutako etxebizitza batean bizi dira; aitzitik, 30 eta 34 urte bitarteko pertsona emantzipatuen artean, gehiengoa dira beren jabetzako etxebizitza batean bizi direnak. Aldea are nabarmenagoa da nazionalitate espainiarra dutenen eta nazionalitate atzerritarra dutenen artean: nazionalitate espainiarra duten hiru gazte emantzipatutik bi beren jabetzako etxebizitza batean bizi dira; nazionalitate atzerritarra dutenen kasuan, hamarretik zortzi alokatutako batean bizi dira.

2.1. taula

18 eta 34 urte bitarteko gazte emantzipatuen etxebizitzaren edukitze-erregimena 2023an, sexuaren, adinaren eta nazionalitatearen arabera (%)

(%)	GUZTIRA	Sexua		Adina (urteak)		Nazionalitatea	
		Emakumeak	Gizonak	18-29	30-34	Espainiarra	Atzerritarra
Jabetza	52,4	51,6	53,5	38,9	61,0	66,6	16,3
Alokairua	44,5	45,3	43,5	58,0	36,0	29,4	82,9
Beste moduren bat (lagata...)	3,1	3,1	3,0	3,1	3,1	3,9	0,8
Guztira	100	100	100	100	100	100	100
(n)	467	262	205	181	286	356	111

Alokairuaren aukerari dagokionez, badirudi hori ez dela gazteek gehien nahi duten aukera. Alokairuan bizi diren gehienek (% 81,8) adierazi dute horrela bizi direla erosteko diru-sarrera edo errenta propio nahikorik eta egonkorrik ez dutelako. Eta, gainera, % 9,9k adierazi du aldi baterako irtenbidea dela, erosi ahal izan arte.

Erosteko diru-sarrera nahikorik eta egonkorrik ez izatearen aipamenak areagotu dira 2019tik 2023ra (hori zen alokairuan emantzipatutako gazteen % 65,4ren argudioa 2019an, % 78,1ena 2021ean eta, ikusi dugunez, % 81,8koa 2023an).

Bestalde, 2023an, alokairuan bizitzeko arrazoiak azaltzean, gazte batek ere ez du esan etxebizitzaren baldintzak eta errenta aukera ezin hobea zela.

2.3. grafikoa


Alokairuan emantzipatutako 18 eta 34 urte bitarteko gazteek alokairuaren alde egiteko emandako arrazoiak, 2023an (%)



Oro har, alokairuan bizitzearekin duten gogobetetzea ez da oso altua; izan ere, alokairuan bizi direnen artean, egoera horrekin oso edo nahiko pozik daudela diotenak (% 50,1) gutxi edo batere pozik ez daudela diotenak (% 50,0) bezainbeste dira. Eta alokairuan bizi direnen gogobetetze-maila jaitsi egin da aurreko urteekin alderatuta (2015ean, alokairuan emantzipatutako gazteen % 79,1 oso edo nahiko pozik zeuden horrela).

2.4. grafikoa

Alokatutako etxebizitza batean bizi diren 18 eta 34 urte bitarteko gazte emantzipatuek alokairuan bizitzearekin dute gogobetetasunaren bilakaera (%)



Hori ez da harritzekoa, kontuan hartuta, alde batetik, alokairuan dauden gazte gehienek adierazten dutela hala bizi direla zirkunstantziengatik eta ez nahiago dutelako, eta, bestetik, alokairu-errentek izan duten goranzko bilakaera, jarraian ikusiko dugun bezala.

2.2. Etxebizitzako hileko gastua

2023an, alokairuan bizi diren gazte emantzipatu gehienek (% 78,0, zehazki) adierazi dute hilean 451 eurotik 900 eurora bitarteko errentak ordaintzen dituztela. Beste % 15,4k 450 euro baino gutxiago ordaintzen du hilean, eta % 5,4k 900 euro baino gehiago hilean. Errenta txikiak alokairu sozialeko etxebizitzetan bizi diren pertsoneri dagozkie. Oro har, alokairuan emantzipatutako pertsonen erdiek hilean 650 euro baino gehiago ordaintzen dute, eta beste erdiek kopuru hori baino gutxiago. Batez bestekoa hilean 638,21 eurokoa da.

Alokairuan emantzipatutako gazteek, batez beste, ordaintzen dituzten 638,21 euro horiek Euskadin 2023ko abenduaren 31n indarrean zeuden etxebizitza libre kolektiboan alokairu-kontratuen batez besteko errentarekin konparatuz gero, ikusten dugu gazteek ordaindutakoa 100 euro gutxiago ordaintzen dutela (Euskadiko batez bestekoa, Alokairuaren Merkatuaren Estatistikaren arabera, hilean 739,50 eurokoa baita)^[9].

Estatistika hori Eusko Jaurlaritzaren fidantza-gordailuetan oinarritzen da^[10], eta ez higiezin-agentziek alokairu-etxebizitzak eskaintzen dituzten prezioetan. Higiezin-agentziek ezarritako zifra horiek handiagoak izan ohi dira, baina horrek ez du esan nahi alokairu-kontratua azkenean higiezin-agentziak markatutako prezioarekin sinatzen denik, negoziazio-prozesu bat egon baitaiteke, eta, horren ondorioz, azken prezioa zertxobait txikiagoa izan daiteke.

Bestalde, etxebizitza erosi eta hipoteka-kreditu bat ordaintzen ari direnen artean, kreditua eta interesak amortizatzekeo gastuaren hileko batez besteko zenbatekoa 578,01 eurokoa da 2023an. Kasu horretan, mediana (hipoteka-kreditua duten gazteen % 50ek zenbateko hori baino gehiago ordaintzen dute, eta beste % 50ek zenbateko hori baino gutxiago ordaintzen dute) 517 eurokoa da hilean.

Euskal Autonomia Erkidegoko Erregistratzaileen eta Jabetza Erregistroen Elkargoak jasotzen duen eta Etxebizitzako Behatokiak argitaratzen duen Higiezin Erregistro Estatistikako datuen arabera, Euskadin batez besteko hileko hipoteka-kuota 719,18 eurokoa izan da 2023ko azken hiruhilekoan^[11]. Gazteek hipoteka ordaintzeko egiten duten gastua batez besteko hori baino dezente txikiagoa da^[12], eta alokairuan emantzipatutako gazteek hilean ordaintzen duten batez besteko errenta baino txikiagoa ere bai.

Diru-tarteen araberako azterketak erakusten duenez, etxebizitza jabetzan duten eta hipoteka-mailegua ordaintzen duten emantzipatutako gazteen % 26,1ek 450 euro baino gutxiago ordaintzen du hilean (hau da, alokairuan dauden gazteen artean baino ehuneko handiagoak ordaintzen du hilean zenbateko hori baino gutxiago), eta % 6,1ek, berriz, 900 euro baino gehiago erabiltzen ditu hilean hipoteka ordaintzeko. Ia ez dago alderik hileroko etxebizitzan 900 eurotik gorako gastua egiten duten alokatutako gazteen eta hipotekatutako gazteen artean.

[9] Etxebizitzako Behatokia (2024): Alokairu-merkatuaren Estatistika (AME). Urteko txostena 2023 [linean]. Hemen eskuragarri: https://observatoriovivienda.euskadi.eus/contenidos/documentacion/informe_emal_2023t4/eu_def/Informe-EMAL-anual-2023_eus_v1.pdf (4. or.) [Kontsulta: 2024/04/22]

[10] Etxebizitzari buruzko ekainaren 18ko 3/2015 Legeak ezartzen duenez, 2015eko irailaren 26tik aurrera (egun hori barne) Euskadin sinatutako errentamendu-kontratuek nahitaez gordailutu behar dute ezarritako fidantza, eta, normalean, hileko errenta baten baliokidea izaten da fidantza hori. Horri esker, eraikin kolektiboetan dauden etxebizitza libreen alokairu-errentei buruzko datu estatistikoak eskura daitezke (merkaturako prezioan), aztertu ahal izateko. Aurreko urteetan sinatutako kontratuen kasuan, errentak kontratua sinatzen den egunetik erreferentziako datara bitartean erregistratutako KPlaren igoeraren arabera eguneratzen dira.


[11] Etxebizitzako Behatokia: Higiezin Erregistro Estatistika, 2023. 4. hiruhilekoa (Excel taulak) [linean]. Hemen eskuragarri: https://observatoriovivienda.euskadi.eus/x39-ovse04/es/contenidos/estadistica/ovv_registral23/es_def/index.shtml (gaztelaniaz) (3.5.1 taula) [Kontsulta: 2024/04/22]

[12] Zehaztu behar da hipoteka-mailegua duten gazte emantzipatu guztiek ez dutela gastu hori aitortu; izan ere, alde batetik, galdera hori etxebizitza aldatu edo birgaitu beharrik ez duten pertsoneri bakarrik egin zaie, eta, beste alde batetik, pertsona batzuek ez diote galderari erantzun nahi izan. Guztira, amortizazioagatik eta interesengatik hileroko zenbat ordaintzen duten jakinarazi duten hipoteka-maileguak dituzten pertsonen ehuneko % 62,4 da. Alokairuan bizi diren gazteen artean, berriz, % 98,3k adierazi du zenbat ordaintzen duen alokairu-errenta gisa.

Esan dugun bezala, gazteek ordaintzen dituzten zenbatekoen eta alokairua edo hipoteka duen Euskadiko biztanleria osoak, batez beste, ordaintzen dituen zifren arteko konparazioak erakusten du emantzipatutako gazteek diru gutxiago erabiltzen dutela etxebizitzarako, bai alokairuan bizi badira, bai hipoteka bat badute, baina horrek lotura du, oro har, gazteak bizi diren etxebizitza motarekin, ondorengo kapituluan ikusiko dugun bezala.

2.5. grafikoa

2023an, 18 eta 34 urte bitarteko gazte emantzipatuek alokairu-errentaren eta hipoteka-kuotaren kontzeptuan ordaintzen dituzten hileko batez besteko gastuen eta Euskadiko biztanleria osoak kontzeptu horiengatik ordaintzen dituen batez besteko gastuen arteko alderaketa (euroak)




*Biztanleria osoaren kasuan, alokairu errentaren iturria Alokairu-Merkatuaren Estatistika (AME) da eta hipotekaren kuotaren iturria Higiezinaren Erregistro Estatistika da.

Etxebizitzako hileko gastuaren bilakaerak adierazten du 2017tik 2019ra 50 euro inguruko igoera izan zela alokairu-errenta gisa hileroko ordaindutako batez besteko zenbatekoan. Ondoren, igoera txikiagoa izan zen 2019 eta 2021 artean, hilean 20 euro ingurukoa. Eta 2023an batez besteko zenbatekoa 2021ean erregistratutakoaren antzekoa izan da (hiru euro gutxiago bakarrik).

Hipoteka-kreditu bat ordaintzen ari direnen artean, ordea, 2021etik 2023ra, hileko batez besteko kuotaren zenbatekoa igo da; pentsa daiteke interes-tasen igoeraren ondorioz. Nolanahi ere, gazteek etxebizitza ordaintzeko hileroko ordaindu behar duten diruari buruzko datu konparatiboak ditugun urte guztietan, ekonomikoki onuragarriagoa da hipoteka-maileguari dagokion kuota ordaintzea alokairuko hileko errenta ordaintzea baino (2023an kontzeptu bat edo bestea ordaintzearen arteko aldea txikitu da, baina, hala ere, 60,20 eurokoa da).

2.6. grafikoa

18 eta 34 urte bitarteko gazte emantzipatuek hilean ordaintzen dituzten alokairu-errentaren edo hipoteka-kuotaren batez besteko zenbatekoen bilakaera, etxebizitzaren edukitze-erregimenaren arabera (euroak)



*Ez dago etxebizitza erositako eta hipoteka-mailegua duten gazte emantzipatuek 2015ean eta 2017an hilean ordaintzen zituzten zenbatekoen buruzko daturik.

2.3. Diru-sarreraren eta etxebizitzako gastuen arteko erlazioa

Hipoteka ordaintzen ari diren gazte emantzipatuen etxeko unitateen batez besteko diru-sarrerak, oro har, alokairuan bizi diren gazteen etxeko unitateenak baino handiagoak dira. Hipoteka ordaintzen dutenen familien diru-sarrera guztien hileko zenbateko garbia 2.603,72 eurokoa da, eta alokairuan bizi diren hileko diru-sarrera garbiak 2.088,43 eurokoak dira (hau da, 500 euro inguruko aldea, batez beste). Zehaztu behar da hipoteka ordaintzen ari direnen kasuan, bi pertsonak edo gehiagok etxera diru-sarrerak ekartzen dituztela diotenen ehunekoa % 63,5ekoa dela, eta alokairuan bizi diren artean, berriz, ehuneko hori % 52,4 dela; hau da, alokairuan bizi diren % 44,3k eta jabetzako etxebizitza batean bizi eta hipoteka ordaintzen dutenen % 35,2k adierazi dute etxebizitzaren gastuei soldata bakar batekin aurre egin behar dietela.


Familiaren guztizko diru-sarrerak eta hipoteka-kuotaren edo alokairu-errentaren gastuak kontuan hartuta, ikusten da, guztira, hileko etxebizitza-gastuak dituzten gazteen % 29,5 finantza-erakundeek bideragarritzat jotzen duten zorpetzearen gehieneko mugaren gainetik dagoela, etxeko guztizko diru-sarreraren % 30 baino gehiago hipotekaren edo alokairu-errentaren kuota ordaintzeko erabiltzen baitute. Eta, zehazkiago, % 16,0k etxeko diru-sarreraren % 40 baino gehiago bideratzen du ordaintzera horietara, eta horrek argi eta garbi adierazten du familia edo etxeko unitate horiek gehiegizko esfortzu ekonomikoko egoeran daudela etxebizitza ordaintzeko^[13].

Alokairuan edo jabetzan hipoteka ordaintzen, hau da, etxebizitzako hileko gastuekin, emantzipatuta izanik, etxebizitzako diru-sarrerei eta gastuei buruzko informazioa eman duten eta, etxeko diru-sarreraren % 40 baino gehiago bideratzeagatik, gehiegizko esfortzu ekonomikoko egoeran dauden 18 eta 34 urte bitarteko gazteen proportzioa txikiagoa da 2023an (% 16,0) 2021ean baino (% 22,1), eta bi urte horietan 2019an izandakoaren portzentajearen azpitik dago (% 29,0).

Hipotekako zein alokairu-errentako gastuei aurre egiteko gehiegizko esfortzu ekonomikoko egoeran dauden gazte emantzipatuen proportzioa handiagoa da emakumeen artean, 30 urte baino gutxiago dituztenen artean, Bizkaian bizi diren artean eta, bereziki, atzerriko nazionalitatea dutenen artean.

2.7. grafikoa

Alokairuan edo jabetzan hipotekarekin bizi diren 18 eta 34 urte bitarteko gazte emantzipatuek 2023an errenta edo hipoteka-kuota ordaintzera bideratu behar duten etxeko unitatearen guztizko diru-sarreraren proportzioa, sexuaren, adinaren, lurralde historikoaren eta nazionalitatearen arabera (%)




[13] Kalkulu hori egiteko kontuan hartu ditugu etxebizitza ordaintzeko hilean zenbat gastatzen duten (hipoteka-kuotaren edo alokairu-errentaren zenbatekoak) eta etxeko kide guztien artean hilean zenbat kobratzen duten jakinarazi diguten pertsonak.

Alokairuan edo jabetzan hipotekarekin bizi diren pertsona emantzipatuen arteko aldeak oso handiak dira. Hilean zenbat ordaintzen duten alokairu-errentagatik eta zeintzuk diren familiaren diru-sarrerak adierazi duten alokairuan emantzipatutako pertsonen artean, laurden bat (% 25,0) gehiegizko esfortzu ekonomikoko egoeran dago, etxeko diru-sarreraren % 40 baino gehiago errenta ordaintzeko erabiltzen duelako. Etxebizitza-gastuak (hipoteka-kuota) eta familia-diru-sarrerak zeintzuk diren adierazi duten hipotekadun gazte emantzipatuen artean, berriz, hipoteka-kuota ordaintzeko gehiegizko esfortzu ekonomikoko egoeran daudenen ehunekoa nabarmen murrizten da eta % 3,7koa da, hain zuzen ere. Argitu behar da, azken kasu horretan, banku-erakundeek hipoteka-mailegu bat eskatzen duten pertsonen egoera aztertzen dutela (diru-sarrerak, aurrezkiak, lan-egonkortasuna, kreditu-historia, etab.), eta ez diotela kreditua ematen gehiegizko zorpetze-arriskuan edo hipoteka ordaintzeko gehiegizko esfortzu ekonomikoan legokeen pertsona bati.

2.1. irudia

Alokairuan edo jabetzan hipotekarekin emantzipatutako gazteen hileko batez besteko diru-sarrerak eta gastuak eta gehiegizko esfortzu ekonomikoa (diru-sarrera garbien % 40 baino gehiago gastu horiek ordaintzeko erabiltzeagatik) 2023an



* Datu horiek alokairu-errentan edo hipoteka-kuotan hileko gastuei eta familiaren guztizko diru-sarrerei buruzko informazioa eman duten pertsonen dagozkie^[14].

Etxebizitzan hileko gastuak dituzten eta etxeko diru-sarreraren % 40 baino gehiago etxebizitza ordaintzeko erabiltzeagatik gehiegizko esfortzu ekonomikoko egoeran dauden gazte emantzipatuen ehunekoa jaitsi egin da aurreko urteekin alderatuta; 2019an % 29,0 zen, 2021ean % 22,1 eta 2023an % 16,0.

Gehiegizko esfortzu ekonomikoko egoeran dauden pertsona horiek zein ehuneko diren emantzipatutako gazteen guztizkoan (etxebizitzan hileko gastuak izan ala ez) kalkulatu badugu, ikusiko dugu 2023an % 12,3 direla, 2021ean % 16,8 eta 2019an % 14,4.


[14] Gainera, hipoteka-mailegua dutenen kasuan, etxebizitza aldatzeko edo birgaitzeko beharrik ez duten pertsonen baina ez zaie galdetu etxebizitza-gastuei buruz

2.4. Diru-laguntzak eta babestutako etxebizitza

Emantzipatutako gazteen % 7,1ek adierazi du etxeko norbaitek laguntza ekonomikoak jasotzen dituela, hala nola Gizarte Larrialdietarako Laguntzak (GLL). Alokairuan bizi diren gazteen artean, % 13,6k jasotzen dituzte dirulaguntzak. Gizarte-laguntzak jasotzeari dagokionez, ez dago alde nabarmenik Espainiako nazionalitatea duten gazte emantzipatuen artean (% 6,2) eta atzerriko nazionalitatea dutenen artean (% 9,2).


Etxean laguntza ekonomiko publikoren bat jasotzen duten gazte emantzipatuen ehunekoa murriztu egin da aurreko urteekin alderatuta

2.8 grafikoa
Etxean laguntza ekonomikoren bat jasotzen duten 18 eta 34 urte bitarteko gazte emantzipatuen ehunekoaren bilakaera (%)



Bestalde, emantzipatutako gazteen % 12,1 etxebizitza babestu batean bizi da (BOE edo soziala). Etxebizitza babestu batean bizi diren gazte emantzipatuen ehunekoa zertxobait jaitsi da azken urteetan, eta 2023ko balioa serieko baxuena da.

2.9. grafikoa
Babestutako etxebizitza batean bizi diren 18 eta 34 urte bitarteko gazte emantzipatuen ehunekoaren bilakaera (%)



Jabetzako etxebizitza batean hipoteka ordaintzen bizi diren 18 eta 34 urte bitarteko gazte emantzipatuen artean, % 19,1ek babestutako etxebizitza batean bizi dela dio; ehuneko hori antzekoa da guztiz ordainduta duten jabetzako etxebizitza batean bizi direnen artean (% 19,9), baina alokatutako etxebizitza batean bizi direnen artean % 5,4 bakarrik bizi da babestutako etxebizitza batean.


Babestutako etxebizitza batean (jabetzakoa zein alokairukoa izan) bizi diren 18 eta 34 urte bitarteko gazte emantzipatuen ehunekoa handiagoa da Araban (% 22,0), Bizkaian (% 12,5) edo Gipuzkoan (% 7,0) baino; izan ere, Gipuzkoak du babestutako etxebizitza batean bizi diren gazte emantzipatuen ehunekorik txikiena.

Babestutako etxebizitza batean bizi diren 30 eta 34 urte bitarteko pertsonei dagozkien zifrak 18 eta 29 urte bitartekoei dagozkienak baino handiagoak dira (% 15,0 eta % 7,0, hurrenez hurren).

Bestetik, babestutako etxebizitza batean bizi direnen ehunekoak handiagoak dira nazionalitate espainarra duten gazteen artean, atzerriko nazionalitatea dutenen artean baino; % 14,3 eta % 6,3, hurrenez hurren.

2.10. grafikoa

Babestutako etxebizitza batean bizi diren 18 eta 34 urte bitarteko gazte emantzipatuen ehunekoa 2023an, sexuaren, adinaren, lurralde historikoaren eta nazionalitatearen arabera (%)




Ezin da ezarri babestutako etxebizitzetan bizi diren gazteek etxebizitzara bideratzen duten gastua eta hori ordaintzeko egin behar duten gaitasun ekonomikoak Etxebizitza Beharrei eta Eskariari buruzko Inkesta oinarri hartuta, aztertutako laginean ez baitago babestutako etxebizitzetan bizi diren gazteen kopuru nahikorik estatistikoki adierazgarriak eta fidagarriak izango lirakeen datuak eman ahal izateko.

3. EMANTZIPATUTAKO GAZTEAK BIZI DIREN ETXEBIZITZEN ETA INGURUNEAREN EZAUGARRIAK

Euskadiko 18 eta 34 urte bitarteko gazte emantzipatuen erdiak baino gehixeagok (% 54,2) familia-unitatea okupatzen duen lehen etxebizitza dela dio. Hori ohikoagoa da jabetzako etxebizitza batean bizi direnen artean (etxebizitza erabat ordainduta dutenen % 62,2k eta hipoteka ordaintzen ari direnen % 68,1ek azaldu dute hori). Aitzitik, etxebizitzaren txandakatzea ohikoagoa da alokairuan bizi direnen artean (pertsone horien artean erdia baino gutxiago dira, % 38,4 zehazki, hauxe beren lehen etxebizitza dela diotenak) eta atzerriko nazionalitatea duten gazteen artean (% 62,7rentzat ez da haien lehen etxebizitza) ^[15].

3.1. grafikoa

18 eta 34 urte bitarteko gazte emantzipatuen banaketa 2023an, bizi diren etxebizitza beren lehen etxebizitza den ala ez kontuan hartuta eta sexuaren, adinaren, nazionalitatearen eta edukitze-erregimenaren arabera (%)



3.1. Emantzipatutako gazteak bizi diren etxebizitzaren ezaugarri fisikoak

Emantzipatutako gazte gehien-gehienak eraikin kolektiboetako pisuetan bizi dira; zehazki, % 94,5. Ehuneko hori aurreko urteetakoaren oso antzekoa da (% 94,9 zen 2021ean eta 2019an % 95,4). Bestalde, % 3,2 familia bakarreko etxebizitza isolatu batean bizi da, eta gainerako % 2,4 familia bakarreko etxebizitza atxiki batean.

Espainiar nazionalitatea duten gazteek familia bakarreko etxebizitza gehiago eskuratu dituzte atzerriko nazionalitatea duten gazteek baino (% 7,3 eta % 1,1, hurrenez hurren). Gainera, etxebizitza erosi dutenen % 6,6 familia bakarreko etxebizitza batean (isolatua edo atxikia) bizi da eta etxebizitza alokatu dutenen artean, berriz, % 1,1 soilik bizi da familia bakarreko etxebizitza batean.

Bestalde, emantzipatutako hamar gaztetik bederatzi (% 89,5) bigarren eskuko etxebizitzetan bizi dira; gazteen % 10,5, aldiz, etxebizitza berrietan bizi dira. Etxebizitza erabiltzetan bizi direnen ehunekoak gora egin du 2019. eta 2021. urteekin alderatuta, orduan % 83,0koa eta % 83,4koa baitziren, hurrenez hurren.

[15] Kapitulu honetan ez dira aurkeztuko oinordetzan hartutako etxebizitzetako edo lagatako buruzko datuak, laginean pertsona gutxi dituzte-lako ezaugarri horietako etxebizitzak, eta, beraz, datu horiek ez dira estatistikoki adierazgarriak


Arabako gazte emantzipatuak Bizkaikoak edo Gipuzkoakoak baino neurri handiagoan bizi dira eraiki berri diren etxebizitzetan (Arabak % 17,6, Bizkaian % 9,1 eta Gipuzkoan ere % 9,1).

Espainiako nazionalitatea duten gazte emantzipatuek ere etxebizitza berriak eskuratu dituzte (% 13,9) atzerriko nazionalitatea duten gazteek baino neurri handiagoan (% 1,8).

Erositako eta erabat ordaindutako etxebizitza batean emantzipatutako gazteen artean, etxebizitza berria erosi zutenen ehunekoa % 33,2 zen; etxebizitza erosi zutenen eta hipoteka-mailegu bat ordaintzen ari direnen artean, berriz, etxebizitza berria erosi zutenen ehunekoa % 13,2 da, eta alokairuan bizi direnen artean, % 1,0k baino ez du etxebizitza hori estreinatu.

3.2. grafikoa

18 eta 34 urte bitarteko gazte emantzipatuen banaketa 2023an, bizi diren etxebizitza berria ala erabilia den kontuan hartuta eta sexuaren, adinaren, nazionalitatearen eta edukitze-erregimenaren arabera (%)




Bi aldagaien konbinazioak (berria/erabilia eta pisua/familia bakarrekoa) gazte emantzipatuak zein etxebizitza motatan bizi diren erakusten du: % 84,8 bigarren eskuko pisuetan, % 9,7 pisu berrietan, % 4,7 bigarren eskuko familia bakarreko etxebizitzetan (isolatuak edo atxikiak) eta % 0,8 soilik familia bakarreko etxebizitza berrietan.

2021etik 2023ra igo egin da bigarren eskuko pisuetan bizi diren gazteen ehunekoa (% 80,0tik % 84,8ra), eta behera egin du pisu eraiki berrietan bizi direnena (2021eko % 14,9tik 2023ko % 9,7ra).

3.3. grafikoa

18 eta 34 urte bitarteko gazte emantzipatuen banaketa 2023an, bizi diren etxebizitza motaren arabera (%)



Emantzipatutako gazteen erdiak (% 50,7) 50 urte baino gehiago dituzten etxebizitzetan bizi dira, beste % 25,0 antzinatasun gutxiago dituzten etxebizitzetan (26 eta 50 urte bitartekoa) eta % 24,3 berriagoak diren etxebizitzetan (25 urte edo gutxiagokoak). Batez beste, gazteek adierazi dute beren etxebizitzak 50 urteko antzinatasuna duela (etxebizitza eraiki zen urtea galdetu zaie eta, erantzunen arabera, batez bestekoa 1973 urtea izan da 2023an). Emantzipatutako gazteak bizi diren etxebizitzetan batez besteko antzinatasuna Euskadiko etxebizitza-parkearen batez bestekoa baino zertxobait handiagoa da (48,7 urte 2023ko urtarrilaren 1ean)^[16].

Etxebizitza alokatu duten gazteak beren etxebizitza erosi dutenak baino zaharragoak diren etxebizitzetan bizi dira (batez beste, 56 urteko eta 43 urteko antzinatasuna dituzte etxebizitza horiek, hurrenez hurren). Atzerriko nazionalitatea duten gazteak ere Espainiako nazionalitatea duten gazteak baino zaharragoak diren etxebizitzetan bizi dira (53 urteko eta 49 urteko etxebizitzetan, batez beste).


Arabako gazteak dira etxebizitza berrienak dituztenak, 44 urteko batez besteko antzinatasunarekin; Bizkaiko eta Gipuzkoako gazte emantzipatuak, berriz, 51 urteko etxebizitzetan bizi dira, batez beste. Hori ez da harrizkoa, kontuan hartuta Arabako etxebizitza-parkea dela "modernoa" (2023ko urtarrilaren 1ean 42,7 urteko antzinatasuna zuen, batez beste)^[17].

[16] Iturria: Eustat: Biztanleriaren eta etxebizitzaren errolda. Etxebizitzak. "Euskal Aeko familia etxebizitzak, lurralde-eremuaren arabera egitura-ezaugarriei jarraiki. 2023/01/01" [linean]. Hemen eskuragarri: [Estatistika taulak: Euskal Aeko familia etxebizitzak, lurralde-eremuaren arabera egitura-ezaugarriei jarraiki. 2023/01/01 \(eustat.eus\)](#) [Kontsulta: 2024/07/22]

[17] Ibidem

3.4. grafikoa

18 eta 34 urte bitarteko gazte emantzipatuen banaketa 2023an, bizi diren etxebizitzaren antzintasuna kontuan hartuta eta lurralde historikoaren, nazionalitatearen eta etxebizitza eskuratzeko moduaren arabera (%)



Etxebizitzaren tamainari dagokionez, emantzipatutako gazte gehienak 61 eta 90 metro koadro bitarteko etxebizitzetan bizi dira (% 56,4). Beste % 19,0 etxebizitza txikiagoetan bizi da, 61 m²tik beherako azalera duten etxebizitzetan, eta % 24,4, aldiz, 90 m² baino gehiagoko etxebizitzetan.

Emantzipatutako gazteak bizi diren etxebizitzaren batez besteko azalera 82,0 m²-koa da. Batez besteko hori Euskadiko etxebizitza-parkearena baino zertxobait txikiagoa da; izan ere, Euskadiko etxebizitzaren batez besteko tamaina 87,5 m²-koa zen 2023an ^[18].


Gazteek erositako etxebizitzaren batez besteko azalera (erabat ordainduta daudenak eta hipotekatuta daudenak barne) alokatutako etxebizitzarena baino handixeagoa da (84,4 m² eta 79,6 m², hurrenez hurren).

Espainiako nazionalitatea duten gazte emantzipatuak atzerriko nazionalitatea dutenak baino etxebizitza handiagoetan bizi dira (84,0 m² eta 77,0 m², hurrenez hurren), baina gogoan izan behar da atzerriko nazionalitatea duten gazte emantzipatu gehienak alokairuko etxebizitzetan bizi direla, eta, lehen ikusi den bezala, erositakoak baino batez besteko azalera txikiagoa dutela. Bestalde, 90 m² baino gehiagoko etxebizitzetan bizi diren gazteen ehuneko handiagoa da Bizkaian, Araban edo Gipuzkoan baino.

[18] Ibidem

3.5. grafikoa

18 eta 34 urte bitarteko gazte emantzipatuen banaketa 2023an, bizi diren etxebizitzaren azalera kontuan hartuta eta lurralde historikoaren, nazionalitatearen eta etxebizitza eskuratzeko moduaren arabera (%)



Batez beste, 18 eta 34 urte bitarteko pertsona emantzipatuak bizi diren etxebizitzetan 6 gela daude, sukaldea, egongela, logelak eta komunak kontuan hartuta.

Gazte horien hamar etxebizitzatik seik bainugela bakarra dute (% 60,5), eta % 39,4k bi bainugela edo gehiago (Euskadiko etxebizitzaren batez bestekoaren gainetik, Euskadiko etxebizitza guztien % 35,1ek bainugela bi edo gehiago baitituzte)^[19]. Bi bainugela edo gehiago dituzten etxebizitzetan bizi diren gazte emantzipatuen ehunekoa handiagoa da Araban (% 44,8), eta hori logikoa da, Arabako etxebizitza-parke osoan bi bainugela edo gehiago dituzten etxebizitzaren proportzioa (% 41,5), Bizkaian (% 34,5) eta Gipuzkoan (% 33,0) erregistratutakoa baino handiagoa baita. Gazteek erositako etxebizitzek ere alokatutakoek baino neurri handiagoan dituzte bi bainugela edo gehiago (% 49,7 eta % 27,6, hurrenez hurren).

Gela-kopuruari dagokionez, emantzipatutako gazteak bizi diren etxebizitzaren erdiak baino gehixeagok (% 55,5) hiru logela dituzte, % 25,8k bi logela, % 10,2k logela bakarra eta gainerako % 8,4k lau gela edo gehiago. Gazteek erositako etxebizitzek alokatutakoek baino neurri handiagoan izaten dituzte hiru logela edo gehiago (% 70,5 eta % 56,0, hurrenez hurren).

Bestalde, gazte emantzipatuen etxebizitza gehienek igogailua dute eraikinean (% 76,8k). Gazte emantzipatu erdiek baino gutxiagok diote bere etxebizitzan trastelekua dutela (% 44,6k), eta are gutxiagok garajea dutela (% 31,6k).

Arabako gazte emantzipatuen etxebizitzek garajea eta trastelekua dute, Bizkaiko eta Gipuzkoako gazteen etxebizitzek baino neurri handiagoan. Etxebizitza erosi duten gazteek alokairuan bizi direnek baino gehiago dute garajea eta trastelekua. Eta 30 eta 34 urte bitarteko pertsona emantzipatuek ere elementu erantsiak dituzte, hala nola garajea edo trastelekua, 30 urtetik beherakoek baino neurri handiagoan.

[19] Ibidem

3.1. taula

Beren etxebizitzetan elementu jakin batzuk dituzten 18 eta 34 urte bitarteko gazte emantzipatuen ehunekoak 2023an, adinaren, lurralde historikoaren eta etxebizitza eskuratzeko moduaren arabera (%)

(%)	GUZTIRA	Adina (urteak)		Lurralde Historikoa			Etxebizitza eskuratzeko modua	
		18-29	30-34	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	Erosita	Alokatuta
Bi komun edo gehiago	39,4	41,3	38,3	44,8	39,0	37,7	49,7	44,8
Igogailua	76,8	75,3	77,8	80,0	74,1	79,3	78,0	76,3
Trastelekua	44,6	39,1	48,1	73,6	36,4	43,1	57,8	30,6
Garajea	31,6	24,2	36,3	45,9	27,8	30,4	46,6	14,8
(n)	467	181	286	117	174	176	248	177

2023an 18 eta 34 urte bitarteko gazte emantzipatuak bizi diren etxebizitzetan ezaugarriak aurreko urteetan aipatutakoekin alderatzen baditugu, ikusiko dugu 50 urtetik gorako antzinatasuna duten etxebizitzetan bizi diren gazteen kopuruak gora egin duela, bigarren eskuko etxebizitza batean bizi diren ehunekoak gora egin duelako, eta etxebizitzetan batez besteko tamaina ere zertxobait handitu dela.

3.2. taula

Beren etxebizitzetan ezaugarri fisiko jakin batzuk dituzten 18 eta 34 urte bitarteko gazte emantzipatuen ehunekoaren bilakaera (%)

	2015	2017	2019	2021	2023
Eraikin kolektiboko pisua	95,0	93,7	95,4	94,9	94,5
Bigarren eskuko etxebizitza	77,3	76,1	83,0	83,4	89,5
50 urte baino gehiagoko antzinatasuna	24,4	39,1	38,4	49,2	50,7
90 m2 baino gehiagoko azalera	19,2	18,3	18,6	24,3	24,4
Bi komun edo gehiago	*	38,5	37,8	45,1	39,4
Igogailua	72,9	71,9	73,0	71,5	76,8
Trastelekua	43,6	50,1	43,5	45,4	44,6
Garajea	33,1	39,4	33,9	35,3	31,6
(n)	468	422	498	518	467

* Ez dago urte horretako daturik


3.2. Emantzipatutako gazteek beren etxebizitzekin sentitzen duten gogobetetasuna

Oro har, emantzipatutako gazte gehienak pozik daude beren etxebizitzarekin: %49,3k gogobetetze-maila altua dute, eta % 37,1ek nahiko altua. Aitzitik, % 13,7k gogobetetze-maila baxua edo nahiko baxua du.

Gogobetetze-maila altua dutela diotenak bakarrik kontuan hartzen baditugu, ikusiko dugu Araban eta Bizkaian bizi direnek eta etxebizitza erosi dutenek gogobetetze-maila handiagoa dutela (% 50etik gorako ehunekoak dituzte). 18 eta 29 urte bitarteko gazteak ere zertxobait gusturago daude beren etxebizitzarekin 30-34 urtekoak baino. Nolanahi ere, alderik nabarmenena emakume eta gizon gazteen artean gertatzen da; izan ere, gizonak emakumeek baino gehiago diote etxebizitzarekin gogobetetze-maila altua dutela.

3.6. grafikoa

Beren etxebizitzekin gogobetetze-maila altua dutela dioten 18 eta 34 urte bitarteko gazte emantzipatuen ehunekoak 2023an, sexuaren, adinaren, lurralde historikoaren eta etxebizitza eskuratzeko moduaren arabera (%)




Emantzipatutako gazteek beren etxebizitzarekin duten gogobetetzeak bilakaera irregularra izan du azken zortzi urteetan. 2015ean, emantzipatutako gazteen % 47,9k zioen gogobetetze-maila altua zuela; 2017an, ehuneko hori % 54,2ra igo zen, 2019an % 50,3ra jaitsi zen eta are gehiago 2021ean, % 44,9ra arte. 2023an gora egin du berriro (% 49,3ra), baina 2017an eta 2019an erregistratutako zifretara iritsi gabe. Gogobetetzeak lotura izan dezake etxebizitzaren edukitze-erregimenarekin edo etxebizitzaren ezaugarri fisikoekin, besteak beste, eta zaila da zehaztea zein den etxebizitzaren gogobetetze-gorabeheraren arrazoia.

3.3. Emantzipatutako gazteak bizi diren ingurunearen edo auzoaren arazoak

Emantzipatutako gazteak bizi diren auzoan edo ingurunean egon daitezkeen arazoei dagokienez, % 36,6 kexatzen da inguruetan aparkatzerik ez dagoelako, % 19,4 kanpoko zarategatik, % 16,6 zerbitzuak (dendak, bankuak, farmaziak, etab.) eskasak direlako, % 16,2 delinkuentzia- edo segurtasun-gabeziako arazoengatik, eta % 11,1 kutsaduragatik eta/edo usain txarregatik. Aztertutako gainerako alderdiak emantzipatutako gazteen % 10ek baino gutxiagok aipatu dituzte. Guztira, emantzipatutako gazteen % 60,4k aipatu ditu arazo horietako bat edo batzuk.

3.7. grafikoa
Beren ingurunean edo auzoan arazo hauetako bakoitza dagoela dioten 18 eta 34 urte bitarteko gazte emantzipatuen ehunekoa 2023an (%)



Aparkatzeko arazoak dira, behin eta berriz, emantzipatutako gazteek gehien aipatzen dituztenak, baina 2023an kexek behera egin dute aurreko urteekin alderatuta, baita desgaituentzako irigarritasun-gabeziagatik edo berdeguneen eskasiaz kexatzen direnen ehunekoek ere. Izan ere, 2023an auzoan hiru arazo mota horiek daudela adierazi duten gazteen ehunekoa serieko txikiena da.

3.3. taula

Beren ingurunean edo auzoan arazo hauetako bakoitza dagoela dioten 18 eta 34 urte bitarteko gazte emantzipatuen ehunekoaren bilakaera (%)

(%)	2015	2017	2019	2021	2023
Aparkatzeko arazoak	43,6	38,0	51,6	41,2	36,6
Kanpoko zaratak	16,0	20,4	24,0	27,4	19,4
Zerbitzu eskasak (dendak, farmaziak, posta, bankuak...)	11,7	11,9	24,1	15,4	16,6
Delinkuentzia / Segurtasun eza	9,2	12,2	19,7	14,0	16,2
Kutsadura edo usain txarra	5,9	7,2	12,7	13,1	11,7
Komunikazio txarrak / Garraioa	7,7	10,0	21,5	8,9	9,9
Mantentze falta (kaleak...)	4,1	8,9	12,2	13,2	8,9
Garbiketa gutxi / Zabor-bilketa gutxi	7,6	8,5	12,5	8,4	7,7
Irisgarritasun eza desgaituentzat	12,2	8,5	21,1	7,9	4,9
Gune berde gutxi	8,9	6,3	16,4	7,1	4,0
(n)	468	422	498	518	467

2023ko datuen arabera, Gipuzkoako gazteak dira aparkatzeko arazoez gehien kexatzen direnak. Bizkaian eta Gipuzkoan Araban baino kexa gehiago jaso dira zaraten, delinkuentziaren, kutsaduraren eta usain txarren inguruan. Garraioari buruzko kexak zertxobait handiagoak dira Bizkaian; Araban, aldiz, gainerako lurraldeetan baino gehiago aipatzen dira mantentze- eta garbiketa-arazoak.

3.4. taula

Beren ingurunean edo auzoan arazo hauetako bakoitza dagoela dioten 18 eta 34 urte bitarteko gazte emantzipatuen ehunekoa 2023an, lurralde historikoaren arabera (%)

(%)	GUZTIRA	Lurralde Historikoa		
		Araba	Bizkaia	Gipuzkoa
Aparkatzeko arazoak	36,6	32,5	32,6	43,9
Kanpoko zaratak	19,4	7,8	20,0	23,8
Zerbitzu eskasak (dendak, farmaziak, posta, bankuak...)	16,6	18,8	17,2	14,6
Delinkuentzia / Segurtasun eza	16,2	7,2	19,5	15,8
Kutsadura edo usain txarra	11,7	7,8	12,0	13,1
Komunikazio txarrak / Garraioa	9,9	6,5	12,8	7,3
Mantentze falta (kaleak...)	8,9	15,4	7,1	8,4
Garbiketa gutxi / Zabor-bilketa gutxi	7,7	14,5	6,6	6,1
Irisgarritasun eza desgaituentzat	4,9	2,8	5,9	4,4
Gune berde gutxi	4,0	0,0	5,5	3,8
(n)	467	117	174	176

3.4. Emantzipatutako gazteek bizi diren ingurunearekin edo auzoarekin sentitzen duten gogobetetasuna


Auzoarekiko edo ingurunearekiko gogobetetze-maila norberaren etxebizitzarekikoa baino handiagoa da: emantzipatutako gazteen % 56,4k gogobetetze-maila altua du eta beste % 35,6k nahiko altua. % 7,9k baino ez du adierazi bizi den auzo edo ingurunearekiko gogobetetze-maila baxua edo nahiko baxua.

Beren auzo edo ingurunearekiko gogobetetze-maila altua izan duten gazte emantzipatuen ehunekoa % 50etik % 60ra bitartekoa izan da 2015-2023 aldian.

2023an, ingurunearekiko edo auzoarekiko gogobetetasuna handiagoa izan da Arabako gazteen artean. Gizonak ere emakumeak baino gusturago daude beren etxebizitzaren ingurunearekin. Kasu honetan, etxebizitza eskuratzeko moduak ez du auzoarekiko gogobetetasunean eragiten.


3.8. grafikoa

Beren ingurunearekin edo auzoarekin gogobetetze-maila altua dutela dioten 18 eta 34 urte bitarteko gazte emantzipatuen ehunekoa bilakaera (%)



3.9. grafikoa

Beren ingurunearekin edo auzoarekin gogobetetze-maila altua dutela dioten 18 eta 34 urte bitarteko gazte emantzipatuen ehunekoa 2023an, sexuaren eta lurralde historikoaren arabera (%)




4. EMANTZIPATU GABEKO GAZTEEN ETXEBIZITZA-PREMIA

18 eta 34 urte bitarteko hamar pertsonatik ia zazpi ez daude emantzipatuta; % 69,0 gurasoen etxean bizi dira.

Alde nabarmenak daude adinaren eta nazionalitatearen arabera: 25 urte arte, gazteen % 92,5 familiaren etxean bizi dira eta 25 eta 29 urte artean oraindik gazte gehienak gurasoekin bizi dira. Espainiako nazionalitatea duten gazte gehienak gurasoekin bizi dira; atzerriko nazionalitatea dutenen artean, berriz, gehienak emantzipatuta daude.

Bestetik, gizon gazte gehiago dago gurasoekin bizitzen, emakume baino, nahiz eta emakumeen artean ere gehienak gurasoekin bizi diren. Lurralde historikoaren arabera ez dago alde nabarmenik, baina Bizkaia du gurasoekin bizi diren gazteen ehunekorik handiena.

4.1. grafikoa
Emantzipatu gabe dauden 18 eta 34 urte bitarteko gazteen ehunekoa 2023an, sexuaren, adinaren, lurralde historikoaren eta nazionalitatearen arabera (%)



4.1. Aurretik beren kontura bizi izanaren eskarmentua

Beren gurasoekin bizi diren 18 eta 34 urte bitarteko gazteen ia laurden batek dio aurretik bere kontura bizi izan dela (% 24,2): % 20 ikasketengatik edo noizbehinkako lanengatik eta beste % 4,2 emantzipatu zelako.


25 urtetik aurrera handitzen da noizbait beren kontura bizi izan direnen ehunekoa, batez ere noizbait emantzipatu zirenean; ehuneko hori % 0,9 da 18 eta 24 urte bitarteko artean eta 30 eta 34 urteko artean, aldiz, % 11,6 da.

Emantzipatu gabeko emakumeen artean, emantzipatu gabeko gizonen artean baino gehiagok diote noizbait beren kontura bizi izan direla (% 28,8 eta % 20,2, hurrenez hurren) eta arrazoi nagusia beti dira ikasketak edo noizbehinkako lanak.

Lurralde historikoaren arabera azterketak erakusten du noizbait gurasoen etxetik kanpo dizi izan direnen ehunekoa handixeagoa dela Gipuzkoan.

4.2. grafikoa

Aurretik beren kontura bizi izan zirela dioten emantzipatu gabe dauden 18 eta 34 urte bitarteko gazteen ehunekoa 2023an, sexuaren, adinaren eta lurralde historikoaren arabera (%)



Aurretik, emantzipatu zirelako, beren kontura bizi izan direla dioten ehunekoa ia bikoiztu egin zen 2019tik (% 3,4 %) 2021era (% 6,2), baina berriro jaitsi da 2023an, % 4,2ra. Zifra absolutuetan esan dezakegu 2019an 7.700 gaztek, gutxi gorabehera, ziotela gurasoen etxetik kanpo bizi izan zirela emantzipatu zirelako baina berriro gurasoen etxera bueltatu zirela, 2021ean zifra hori handitu zen, 14.200 gazte izatera heldu zen, baina 2023an 18 eta 34 urte bitarteko 9.900 gaztek diote noizbait emantzipatu zirela.

4.2. Emantzipatu gabe dauden gazteek adierazitako etxebizitza-premia


Emantzipatu gabeko 18 eta 34 urte bitarteko gazteen % 36,2k dio 2023an etxebizitza bat beharko lukeela (2021ean baino pixka bat gutxiago, % 38,3k behar baitzuen etxebizitza orduan, baina 2019an baino gehiago, urte horretan % 33,3k etxebizitza-premia baitzuen).

Etxebizitza-premiak gora egiten du adinak gora egin ahala. Izan ere, 18 eta 24 urte bitartekoen % 26,3k dio etxebizitza bat behar duela, eta ehuneko hori % 50,3ra igoten da 25-29 urtekoen artean eta % 54,2ra 30-34 urtekoen artean. Ez dago alde nabarmenik sexuaren arabera, baina lurralde historikoari erreparatuz gero, ikusten da Bizkaian edo Gipuzkoan emantzipatu gabeko gazteen ehuneko handiagoak dio etxebizitza-premia duela.

Bestalde, gazteen % 2,3k dio ez duela etxebizitzarik behar dagoeneko etxebizitza bat duelako, nahiz eta oraindik emantzipatuta ez egon. Adinean aurrera egin ahala, egoera horrek ere gora egiten du. 30 eta 34 urte bitartean, % 6,6k etxebizitza bat erosi, oinordetzan hartu edo alokatu du, baina gurasoekin bizitzen jarraitzen du.

4.3. grafikoa

Emantzipatu gabeko 18 eta 34 urte bitarteko gazteen banaketa 2023an, beren etxebizitza-premia kontuan hartuta eta sexuaren, adinaren eta lurralde historikoaren arabera (%)



Azkenik, % 61,4k, hau da, emantzipatu gabeko pertsona gehienek, etxebizitzarik ez dutela eta une honetan etxebizitza-premiarik ez dutela adierazi dute. 25 urtetik beherako gazteen artean, ehunekoa % 72,8ra igotzen da. Hori logikoa da, kontuan hartzen badugu etxebizitza-premiarik ez dutela dioten pertsonen erdiek baino gehiagok (% 52,8k) esaten dutela diru-sarrerarik gabeko ikasleak direla, eta 25 urtetik beherakoen artean, hirutik bik adierazten dutela arrazoi hori. Etxebizitza-premiarik ez duten emantzipatu gabeko gazteen % 31,5ek adierazi du ez duela emantzipazioa planteatzen. Eta % 7,6k dio diru-sarrerak dituela, baina diru-sarrera horiek ez direla emantzipatzeko adinakoak, ezta egonkorrak ere (25-34 urtekoen artean, arrazoi hori adierazi dutenen ehunekoa bikoiztu egiten da, eta % 14,3ra iristen da).

4.1. taula

Etxebizitza-premiarik ez duten emantzipatu gabeko 18 eta 34 urte bitarteko gazteek etxebizitza behar ez izateko adierazi dituzten arrazoiak 2023an, sexuaren eta adinaren* arabera (%)


(%)	GUZTIRA	Sexua		Adina (urteak)	
		Emakumeak	Gizonak	18-24	25-34
Diru-sarrera propiorik gabeko ikaslea	52,8	58,6	47,9	67,2	16,2
Ez du emantzipazioa planteatzen	31,5	27,5	34,8	23,8	50,9
Uste du ez duela diru-sarrera nahikorik edo egonkorrik	7,6	7,0	8,1	4,9	14,3
Langabezian, diru-sarrera propiorik gabe	3,5	1,8	5,0	1,6	8,5
Dibertsitate funtzionala duen pertsona	1,4	2,3	0,5	1,0	2,2
Osasun-arazoak ditu	1,2	0,5	1,9	0,9	2,1
Senideak zaintzeko lanak egiten ditu etxean	0,5	0,7	0,2	0,0	1,6
Beste arrazoi batzuk ditu	1,5	1,6	1,6	0,5	4,2
Guztira	100	100	100	100	100
(n)	944	429	515	705	239

*25 eta 34 urte bitarteko gazteak talde berean sartu dira, laginean adin horretako gazteen artean gutxi dira etxebizitza-premiarik ez dutela diotenak.

Etxebizitza behar dutenen artean, ia guztiek (% 95,8) diote Euskal Autonomia Erkidegoan (EAE) beharko luketela. Etxebizitza hori EAEn izan beharko luketenen ehunekoa % 90 baino handiagoa da kolektibo guztietan.

4.4. grafikoa

Etxebizitza-premia duten emantzipatu gabeko 18 eta 34 urte bitarteko gazteen artean, etxebizitza hori EAEn egotea beharko luketela dioten ehunekoa 2023an, sexuaren, adinaren eta lurralde historikoaren arabera (%)




Jarraian, EAEn etxebizitza behar duten emantzipatu gabeko pertsona horiei erreparatuko diegu, haien premia-maila aztertzeko.

Pertsona horien % 31,6k lehen etxebizitza eskuratzeko premia handia dutela diote, eta beste % 30,2k, berriz, premia dezente dutela. Premia handia dutela dioten ehunekoak gora egiten du adinarekin batera, eta zertxobait handiagoa da Bizkaian eta Gipuzkoan, Araban baino. Ez dago alde nabarmenik gizon eta emakume gazteen artean.

4.5. grafikoa

EAEn etxebizitza behar duten emantzipatu gabeko 18 eta 34 urte bitarteko gazteen banaketa 2023an, beren premia-maila kontuan hartuta eta sexuaren, adinaren eta lurralde historikoaren arabera (%)




EAEn etxebizitza behar duten eta lehen etxebizitza hori eskuratzeko premia handia dutela aitortzen duten 18 eta 34 urte bitarteko pertsona emantzipatugabeen ehunekoak hamar puntu baino gehiago igo da 2019tik 2023ra (% 18,0 ziren 2019an, % 28,8ra igo ziren 2021ean eta % 31,6ra 2023an).

Gainera, adinak gora egin ahala, EAEn lehen etxebizitza eskuratzeko bi urte baino gehiago daramatela dioten emantzipatu gabeko pertsonen ehunekoak ere gora egiten du, eta ehuneko hori % 28,0ra iristen da 30-34 urteko pertsonen artean. Araban gutxiago dira premia handia dutela diotenak, baina bi urte baino gehiago etxebizitza eskuratzeko beharra dutenen ehunekoak (% 29,6) beste bi lurralde historikoetan erregistratutakoa baino handiagoa da.

4.6. grafikoa

EAEn etxebizitza behar duten emantzipatu gabeko 18 eta 34 urte bitarteko gazteen banaketa 2023an, beren lehen etxebizitza eskuratzeko premia daramaten denbora kontuan hartuta eta sexuaren, adinaren eta lurralde historikoaren arabera (%)



Aurreko urteekin alderatuta, behera egin du EAEn etxebizitza-premiarekin bi urte baino gehiago daramaten 18 eta 34 urte bitarteko pertsona emantzipatu gabeen ehunekoak (% 24,9 ziren 2019an, % 31,0 ziren 2021ean eta % 19,2 dira 2023an).


4.3. EAEn etxebizitza-premia duten emantzipatu gabeko gazteen lehentasunak

EAEn etxebizitza-premia duten emantzipatu gabeko hamar pertsonatik seik (% 61,2) gaur egun bizi diren udalerrian bizitzen jarraitu nahiko lukete; zehazki, % 6,9k etorkizuneko etxebizitza auzo berean egotea nahiko lukete, eta % 54,3k gutxienez herri edo hiri berean egotea nahiko lukete. Beste % 30,2k nahiago luke eskualde berean egotea, nahitaez udalerrri bera izan gabe, eta soilik % 4,2k nahiago luke beste eskualde batean egotea.

25 eta 34 urte bitarteko pertsonak eta, batez ere, Araban bizi direnek dute udalerrri berean (auzo berean bizi nahi dutenak barne hartuta) etxebizitza bat eskuratzeko lehentasun handiena.

4.7. grafikoa

EAEen etxebizitza-premia duten emantzipatu gabeko 18 eta 34 urte bitarteko gazteen artean, etxebizitza hori bizi diren udalerrri berean egotea nahiago luketela dioten ehunekoa 2023an, sexuaren, adinaren eta lurralde historikoaren arabera (%)




Udalerrri berean etxebizitza bat eskuratzeko lehentasuna 2021ean adierazitakoaren antzekoa da; izan ere, orduan, EAEen etxebizitza-premia zuten emantzipatu gabeko gazteen % 60,8k adierazi zuen nahiago zuela etorkizuneko etxebizitza bere auzoan edo udalerrian egotea, baina ehuneko hori jaitsi egin da aurreko urteekin alderatuta (% 65,7koa zen 2015ean, % 68,4koa 2017an eta % 79,0koa 2019an).

Nolanahi ere, etxebizitza auzo edo udalerrri berean egotea nahiago dutela dioten pertsonen erdiak (% 49,6) udalerriz aldatzeko prest egongo lirateke, beren premietara egokitutako ezaugarriak eta prezioa dituen etxebizitza eskuratu ahal izango balute. Beste % 39,1ek uste du, hala ere, ez lukeela udalerriz aldatuko, eta % 11,4k ez daki edo ez du erantzun.

Bestalde, eta dituzten aukera ekonomikoak kontuan hartuta, EAEen etxebizitza-premia duten emantzipatu gabeko pertsonen % 36,3k etxebizitza erostea aurreikusten dute, alokatzea aurreikusten dutenak (% 30,2) baino gehixeagok. Beste % 16,5ek erosteko aukera duen alokairuaren alde egingo duela dio, eta gainerako % 16,9ri berdin zaio aukera bat edo beste. 25 eta 34 urte bitartekoek erosteko aurreikuspen handiagoa dute, eta 25 urtetik beherakoek, berriz, alokatzeko aurreikuspen handiagoa. Araban erosteko asmoa duten gazteen ehunekoa Bizkaiko eta Gipuzkoako gazteena baino handiagoa da. Gipuzkoan dago erosteko asmoa duten gazteen ehunekorik txikiena.

4.8. grafikoa


EAEn etxebizitza behar duten emantzipatu gabeko 18 eta 34 urte bitarteko gazteen banaketa 2023an, etorkizuneko etxebizitzarako aurreikusitako edukitze-erregimena kontuan hartuta eta sexuaren, adinaren eta lurralde historikoaren arabera (%)



2015. urtearekin alderatuta, hamabost puntu igo da erosteko asmoa duten gazteen ehunekoa (2015eko % 21,1etik 2023ko % 36,3ra), eta jaitsi egin da alokatzeko nahiz erosteko aukera ematen duen alokairuko etxebizitza bat eskuratzeko aurreikuspena.

4.9 grafikoa

EAEn etxebizitza behar duten emantzipatu gabeko 18 eta 34 urte bitarteko gazteen banaketaren bilakaera, etorkizuneko etxebizitzarako aurreikusitako edukitze-erregimenaren arabera (%)




Etxebizitza erosteko asmoa duten pertsonen erdiek (% 51,8) ez lukete alokairua inolako egoeratan planteatuko. Beste % 36,2k, berriz, errentak merkeagoak balira planteatuko lukete; % 3,9k alokairua birplanteatu ahal izango lukete prezioekin zerikusirik ez duten beste zirkunstantzia batzuk gertatuko balira (alokatzeko etxebizitzak egoera hobean baleude, etab.), eta gainerako % 8,0ak ez daki edo ez du erantzun.

4.4. EAEn etxebizitza-premia duten emantzipatu gabeko gazteen emantzipazio-aurreikuspenak eta diru-sarreraren baldintzatzailea

Emantzipazio-aurreikuspenari dagokionez, EAEn etxebizitza-premia duten emantzipatu gabeko gazteen % 31,9k uste du litekeena dela bi urteko epean emantzipatzea.

Bi urteko epean emantzipatzea aurreikusten dutenen ehunekoak behera egin du aurreko urteekin alderatuta, eta 2023ko ehunekoa serieko txikiena da.

4.10. grafikoa
EAEn etxebizitza-premia duten emantzipatu gabeko 18 eta 34 urte bitarteko gazteen artean, bi urteko epean emantzipatzea aurreikusten dutenen ehunekoaren bilakaera (%)




25-34 urteko pertsonen artean, epe laburrean emantzipatzeko aurreikuspena, hau da, bi urte baino lehenago emantzipatzeko aurreikuspena, 18-24 urteko taldean erregistratutakoa baino handiagoa da (% 35,0 eta % 28,0, hurrenez hurren, 2023an).

Izan ere, etxebizitza behar duten pertsona guztiek ezin dute etxebizitza eskuratu. Hasteko, Euskadin etxebizitza-premia dutenen artean, diru-sarrera propioak dituztela dioten ehunekoa % 71,9 da. Ehuneko hori hamar puntu igo da 2021ean erregistratutakoarekin alderatuta, orduan EAEn etxebizitza-premia zuten emantzipatu gabeko pertsonen % 61,8k diru-sarrera propioak zituztela baitzioen.

Hala ere, diru-sarrera propioak izateak ez du bermatzen etxebizitza bat eskuratu ahal izatea, diru-sarrera propioak dituzten pertsonen % 18,3k soilik uste baitu diru-sarrera horiek nahikoak eta egonkorrak direla etxebizitza bat eskuratu ahal izateko. Diru-sarrera propioak dituztenen % 8,4k esan du nahikoa izango lirakekeela etxebizitza bat eskuratzeko, baina ezegonkorrak direla, eta horrek zaildu egiten duela alokairu-kontratu bat sinatzea edo hipoteka-mailegu bat ematea, eta, beraz, etxebizitza bat benetan eskuratzeko. Beste % 41,0k (talderik handiena, beraz) adierazi du bere diru-sarrerak egonkorrak direla, baina ez direla nahikoak. Eta gainerako % 32,2k adierazi du, diru-sarrera propioak izan arren, diru-sarrera horiek ez direla nahikoak, ezta egonkorrak ere.

4.11. grafikoa

EAEn etxebizitza-premia duten eta diru-sarrera propioak dituzten 18 eta 34 urte bitarteko emantzipatu gabeko gazteen banaketa 2023an, diru-sarrera horiek etxebizitza bat eskuratzeko nahikoak eta egonkorrak diren uste izanaren arabera (%)



Zifra absolutuetan, 2023an, 18 eta 34 urte bitarteko 82.000 gazte inguruk adierazi dute Euskadin etxebizitza bat behar dutela; pertsona horien artean, 59.000 inguruk dituzte diru-sarrera propioak, baina 10.800 inguruk uste dute beren diru-sarrerak nahikoak eta egonkorrak direla etxebizitza bat eskuratzeko eta, beraz, emantzipatzeko aukera errealak dituzte esku-hartze publikorik gabe.

4.1. irudia

Emantzipatu gabeko 18 eta 34 urte bitarteko gazteen zenbatekoa, EAEn etxebizitza-premia izatearen eta diru-sarrera propioak izatearen arabera 2023an (zenbaki absolutu biribilduak)




Zenbaki absolutuetan, 2019tik 2023ra handitu da EAEn etxebizitza behar duten eta diru-sarrera propioak dituzten 18 eta 34 urte bitarteko pertsonen kopurua; zifrak biribilduz, 2019an 48.000 pertsona inguru ziren, 2021ean 52.000 inguru ziren eta 2023an 59.000 dira.

Hala ere, murriztu egin da, diru-sarrera propioak dituzten pertsonen artean, beren diru-sarrera horiek etxebizitza bat eskuratzeko, dela jabetzan, dela alokairuan, nahikoak eta egonkorrak direla uste duten gazteen kopurua. Zifra hori 16.800 gaztekoa zen 2019an, 13.650 pertsonara jaitsi zen 2021ean, eta 2023an 10.800 gaztekoa da.

4.12. grafikoa

EAEEn etxebizitza-premia duten eta diru-sarrera propioak dituzten 18 eta 34 urte bitarteko emantzipatu gabeko gazteen kopuruaren bilakaera bai eta bere diru-sarrerak etxebizitza bat eskuratzeko nahikoak eta egonkorak direla usten dutenen kopuruaren bilakaera ere (zenbaki absolutu biribilduak)




Jarraian, 2023ko datuei erreparatuko diegu, ikusteko EAEEn etxebizitza-premia duten eta diru-sarrera propioak dituzten gazteek zenbat diru erabil ditzaketen etorkizuneko etxebizitza bat ordaintzeko.

EAEEn etxebizitza-premia duten eta diru-sarrera propioak dituzten pertsonen % 31,2k (diru-sarrera horiek nahikoak eta/edo egonkorak diren alde batera utzita) diote hilean gehienez 450 euro erabili ahal izango lituzketela alokairu-errenta ordaintzeko edo hipoteka-kuota ordaintzeko, etxebizitza erostea aukeratuz gero. Beste % 33,3k hilean 451 eta 600 euro artean bideratu ditzake etxebizitzara. Eta etxebizitza-premia eta diru-sarrera propioak dituzten pertsonen % 16,5ek soilik adierazi du hilero 600 euro baino gehiago bideratu ahal izango lituzkeela gastu horietara. Gainerako % 18,9k ez daki edo nahiago du ez erantzutea.

4.13. grafikoa

EAEEn etxebizitza-premia duten eta diru-sarrera propioak dituzten 18 eta 34 urte bitarteko emantzipatu gabeko gazteen banaketa 2023an, etxebizitzako hileko gastu onargarriaren arabera (%)



Etxebizitza ordaintzeko beren gain har lezaketen hileko gastuari buruzko zifraren bat eman dutenak kontuan hartuta^[20], ikusten dugu 2023an gastu onargarri medianoa 500 eurokoa dela, eta horrek esan nahi du kolektiboaren erdiak kopuru hori baino gehiago ordain lezakeela eta beste erdiak gastu txikiagoa bere gain har lezakeela. Batez bestekoa pixka bat altuagoa da, pertsona batzuek (oso gutxi, zehazki % 6,8k) adierazi baitute hilean 1.000 euro baino gehiago erabil ditzaketela etxebizitza ordaintzeko. Batez besteko hori hilean 568 eurokoa da alokairu-errenta edo hipoteka-kuota ordaintzeko.


Aurreko urteekin alderatuta, ikusten da EAEn etxebizitza-premia eta diru-sarrera propioak dituzten emantzipatu gabeko 18 eta 34 urte bitarteko gazteek hileroko bere gain har lezaketen batez besteko gastua handitu egin dela; izan ere, 2023an, lehen aldiz, 500 euroko muga gainditu du batez besteko gastu onargarri horrek. Batez besteko gastu onargarria 461 eurokoa zen 2015ean, 454 eurokoa 2017an, 496 eurokoa 2019an eta 446 eurokoa 2021ean.

Nolanahi ere, 2023an onar daitekeen batez besteko zenbateko hori (568 euro), Alokairuaren Merkatuaren Estatistikak (AME), 2023ko abenduaren 31n, batez besteko alokairu-errenta gisa ezartzen dituen hileko 739,50 eurotik beherakoa da.^[21]

Batez besteko gastu onargarri hori Euskadiko hileko batez besteko hipoteka-kuota baino txikiagoa da ere, 2023ko azken hiruhilekoan, 719,18 eurokoa baitzen, EAeko Jabetza Erregistratzaileen eta Erregistroen Elkargoaren 2023ko laugarren hiruhilekoko Higiezinaren Erregistro Estatistikan jasotako eta Etxebizitzako Behatokiak argitaratutako datuen arabera^[22].

4.14. grafikoa

EAEn etxebizitza-premia duten eta diru-sarrera propioak dituzten emantzipatu gabeko 18 eta 34 urte bitarteko gazteek hilean etxebizitzarako onar lezaketen batez besteko gastuaren eta alokairu-errenten eta hipoteka-kuoten batez besteko zenbatekoen arteko alderaketa, 2023an (euroak)



Aurkeztutako datuak kontuan hartuta, ulertzekoa da EAEn etxebizitza-premia eta diru-sarrera propioak dituzten emantzipatu gabeko 18 eta 34 urte bitarteko gazte gehienek baieztatzea ez dagoela beren beharretara eta aukera ekonomikoetara egokitutako ezaugarriak eta prezioa dituen etxebizitzarik merkatuan (% 73,7k uste du horrelako etxebizitza gutxi daudela eta beste % 17,3k adierazi du ez dagoela ezaugarri eta prezio horiek dituen etxebizitzarik).


[20] EAEn etxebizitza-premia duten eta diru-sarrera propioak dituzten 18 eta 34 urte bitarteko gazte emantzipatu gabeen % 81ek kalkulatu du zenbat diru erabil lezakeen hilean etorkizuneko etxebizitza bat ordaintzeko.

[21] Etxebizitzako Behatokia (2024): Alokairu-merkatuaren Estatistika (AME). Urteko txostena 2023 (op. cit) (4. or.)

[22] Etxebizitzako Behatokia: Higiezinaren Erregistro Estatistika, 2023. 4. hiruhilekoa (op.cit.) (3.5.1 taula)

4.15. grafikoa


EAEEn etxebizitza-premia duten eta diru-sarrera propioak dituzten emantzipatu gabeko 18 eta 34 urte bitarteko gazteen banaketa 2023an, merkatuan beren beharretara eta aukera ekonomikoetara egokitutako etxebizitza-bolumenari buruz duten iritziaren arabera (%)



Etorkizuneko etxebizitzarako aurreikusitako edukitze-erregimena eta eskura dauden diru-sarrerak edozein direla ere, erosketa-gastuei edo alokairuaren hasierako gastuei aurre egiteko (fidantza, abalak, higiezin agentziarentzako ordainsariak, etab.), EAEEn etxebizitza-premia eta diru-sarrera propioak dituzten 18 eta 34 urte bitarteko emantzipatu gabeen % 64,6k aurrezki propioekin finantzatzeko asmoa du, antzeko beste ehuneko batek (% 64,4k) kreditua eskatu nahi du, % 32,6k senideen laguntzarekin egin nahi die aurre gastu horiei, eta % 9,5ek laguntza publikoekin. Adierazi behar da baliabide horiek ez direla baztertzailak, hau da, pertsona batek bere etorkizuneko etxebizitzaren ordainketari aurre egiteko hainbat bidetan pentsa dezake.

4.16. grafikoa

EAEEn etxebizitza-premia duten eta diru-sarrera propioak dituzten emantzipatu gabeko 18 eta 34 urte bitarteko gazteen artean, etorkizuneko etxebizitzaren gastuei aurre egiteko, proposatutako bide bakoitza erabiltzeko asmoa dutenen ehunekoa 2023an* (%)



*Erantzun anitza, hau da, pertsona batek hainbat bide adieraz ditzake.


5. EAE-N ETXEBIZITZA-PREMIA DUTEN EMANTZIPATU GABEKO GAZTEEN IRITZIAK ETA JARRERAK ETXEBIZITZAREN ARAZOAREN KONPONBIDEEI DAGOKIENEZ

5.1. Etxebizitzaren arazoa konpontzeko neurriak

Etxebizitzaren arazoari irtenbideak bilatzeko orduan, EAEn etxebizitza-premia duten emantzipatu gabeko gazteei (diru-sarrerarik izan ez arren) galdetu zaie zein diren, beren ustez, arazoa konpontzen lagunduko luketen bi neurri nagusiak, proposatutako zerrenda baten barruan.

EAEn lehen etxebizitza behar duten 18 eta 34 urte bitarteko pertsonak gehien babesten dituzten hiru neurriak honako hauek dira: etxebizitza babestu gehiago egitea, alokairu-erregimena sustatzea errenta merkeagoekin eta etxebizitza erosteko laguntza gehiago ematea. Hau da, gazteek alokairura zein erosketara bideratutako konponbideak bilatzen dituzte.

5.1. grafikoa
EAEn etxebizitza-premia duten emantzipatu gabeko 18 eta 34 urte bitarteko gazteek etxebizitzaren arazoa konpontzeko eman dituzten konponbide nagusiak 2023an* (%)



Emakume gazteek gizon gazteek baino zerbait gehiago defendatzen dute etxebizitza babestu gehiago egitea. Gizonen artean, errenta merkeagoak dituen alokairu-erregimena sustatzearen alde egiten dutenak, etxebizitza babestu gehiago eraikitzearen aldekoak bezainbeste dira ia.

25 urtetik beherakoak dira errenta merkeagoak dituen alokairu-erregimena sustatzeko beharra gehien aipatzen dutenak. Neurri hori oso onuragarria izango litzaieke, etorkizuneko etxebizitza alokatzea gehien aurreikusten duen kolektiboa baita.

Etxebizitza premian dauden eta emantzipatu gabe dauden Gipuzkoako gazteek aipatzen dute gehien etxebizitza babestu gehiago eraikitzeko beharra. Bestalde, Araban bizi diren pertsonak gainerakoek baino gehiago aipatzen dute hipoteka-maileguei aplikatu beharreko interes-tasak jaitsi beharko liratekeela, bai eta hutsik dauden pisuak merkatura atera beharko liratekeela ere. Bizkaiko gazteek adierazi dute gehien etxebizitza erosteko laguntzak egon behar direla.

5.1. taula

EAEn etxebizitza-premia duten emantzipatu gabeko 18 eta 34 urte bitarteko gazteek etxebizitzaren arazoa konpontzeko eman dituzten konponbide nagusiak 2023an*, sexuaren, adinaren eta lurralde historikoaren arabera (%)

(neurri bakoitza aipatu duten gazteen %)	GUZTIRA	Sexua		Adina (urteak)		Lurralde Historikoa		
		Emakumeak	Gizonak	18-24	25-34	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa
Babestutako etxebizitza gehiago egitea	42,9	46,9	39,7	43,8	42,2	30,6	42,2	48,3
Alokairuan araubidea sustatzea errenta merkeagoekin	37,5	35,9	38,7	44,3	32,1	39,4	36,2	38,9
Etxebizitza erosteko laguntza gehiago ematea	28,9	28,3	29,4	26,2	31,0	25,4	34,3	21,5
Hipoteka kredituen interes-tasak jaitea	22,7	23,8	21,9	25,6	20,5	32,5	22,1	20,4
Lurraren prezioa merkatzea	14,1	13,5	14,5	14,3	13,9	15,8	11,9	17,0
Hutsik dauden pisuak merkatura ateraraztea	11,9	10,4	13,1	13,0	11,0	17,5	10,8	11,7
Hutsik dauden etxebizitza zaharrak birgaitzea	7,9	10,1	6,1	6,9	8,6	10,3	8,8	5,6
Oro har, etxebizitza gehiago eraikitzea	5,1	4,9	5,4	5,6	4,8	2,9	5,8	4,8
Bestelako neurriak	3,4	4,2	2,8	3,4	3,5	2,0	3,4	4,0
(n)	504	227	277	228	276	94	213	197


*Bi erantzun eman zitezkeen

EAEn etxebizitza-premia duten eta etxebizitzaren arazoaren konponbide nagusia etxebizitza babestu gehiago egitea dela adierazten duten emantzipatu gabeko pertsonen ehunekoa 2021ekoaren antzekoa da, eta 2019an erregistratutakoaren gainetik dago. Aitzitik, irtenbide nagusia errenta merkeagoak dituen alokairu-erregimena sustatzea dela uste dutenen ehunekoak behera egin du 2019 eta 2021 urteekin alderatuta. Era berean, aurreko urteetan baino gutxiago dira 2023an lurzoruaren prezioa merkatzea edo hutsik dauden pisuak merkatura ateratzea onena litzatekeela uste dutenak. Aldiz, hipoteka-maileguen interes-tasak jaitsi beharko liratekeela dioten ehunekoa bikoiztu egin da 2021etik 2023ra.

Datu horiek ikusita, ondoriozta daiteke EAEn etxebizitza-premia duten emantzipatu gabeko gazteek aurreko urteetan baino neurri txikiagoan uste dutela etxebizitzaren arazoaren konponbidea merkatu librean alokairua sustatzearen eskutik etor daitekeela.

5.2. grafikoa

EAEn etxebizitza-premia duten emantzipatu gabeko 18 eta 34 urte bitarteko gazteen aipameneren bilakaera, etxebizitzaren arazoaren konponbide nagusiei dagokienez* (%)



* Bi erantzun eman zitezkeen

Aipatu bezala, etxebizitza-premia duten emantzipatu gabeko gazteen iritziz, etxebizitza babestu gehiago egitea litzateke etxebizitzaren arazoaren konponbide nagusia. Inkestan, eraikitzen diren etxebizitza babestu gehienak alokairuzkoak izatearekin zenbateraino egongo liritekeen ados ere galdetu da.


EAEn etxebizitza-premia duten emantzipatu gabeko gazte gehienak ados daude (erabat ados edo nahiko ados) eraikitzen diren etxebizitza babestu gehienak alokairuan egitearekin (% 62,2).

Bestalde, hutsik dauden etxebizitzetarako kanon edo zerga bat ezartzearekin zenbateraino egongo liritekeen ados ere galdetu dute. EAEn etxebizitza-premia duten emantzipatu gabeko gazteen erdia baino zertxobait gutxiago (% 48,7) ados dago (erabat edo nahiko ados) balizko neurri horrekin. Nolanahi ere, azpimarratu behar da galdetutakoen laurdenek ez dakitela edo ez diotela galdera honi erantzun.

2019tik 2023ra jaitsi egin da, EAEn etxebizitza-premia duten emantzipatu gabeko gazteen artean, etxebizitza hutsei kanon bat ezartzearekin ados (erabat ados edo nahiko ados) dauden gazteen ehunekoa, eta horrek zerikusia du 2023an etxebizitzaren arazoa konpontzeko neurri nagusitzat pisu hutsak merkatura ateratzeko aipamen txikiagoarekin, lehen ikusi dugun bezala.

5.3. grafikoa

EAEn etxebizitza-premia duten emantzipatu gabeko 18 eta 34 urte bitarteko gazteen adostasun-mailaren bilakaera, eraikitzen diren etxebizitza babestu gehienak alokairuzkoak izateari eta hutsik dauden etxebizitzei kanon edo zerga bat ezartzeari dagokienez (%)



2023ko datuei erreparaten badiegu, ikusiko dugu eraikitzen diren etxebizitza babestu gehienak alokairuan izatearekiko adostasuna handiagoa dela 25 urtetik beherakoan artean eta Bizkaian eta Gipuzkoan bizi diren gazteen artean. Emakumeek ere gizonen baino adostasun handiagoa dute neurri horrekin, eta, gainera, erabat ados dauden emakumeen ehunekoa kolektibo guztietan erregistratutako handiena da.

Etxebizitza hutsei zerga bat ezartzeko neurria emakumeen eta gizonen portzentaje berdintsuak babesten du, eta adinaren arabera ere ez dago alde nabarmenik. Hala ere, lurralde historikoei erreparatuz gero, ikusten da neurri hipotetiko horrekiko adostasun-mailarik handiena Gipuzkoako gazteek dutela, eta txikiena, berriz, Arabakoek.

5.2. taula


EAEn etxebizitza-premia duten emantzipatu gabeko 18 eta 34 urte bitarteko gazteen adostasun-maila 2023an eraikitzen diren etxebizitza babestu gehienak alokairuzkoak izatearekin eta hutsik dauden etxebizitzei kanon bat ezartzearekin, sexuaren, adinaren eta lurralde historikoaren arabera (%)

(%)	GUZTIRA	Sexua		Adina (urteak)		Lurralde Historikoa		
		Emakumeak	Gizonak	18-24	25-34	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa
BABESTUTAKO ETXEBIZITZA GEHIENAK ALOKAIRUAN ERAIKITZEA								
Erabat ados	43,0	47,7	39,2	44,8	41,5	37,6	44,0	43,1
Nahiko ados	19,2	16,8	21,2	20,6	18,2	15,3	19,9	19,5
Ez oso ados	10,2	9,3	10,9	8,1	11,7	12,2	9,7	10,2
Batere ados ez	12,4	11,3	13,3	9,9	14,4	11,6	14,9	8,8
Ez dakite edo ez dute erantzun	15,2	15,0	15,4	16,6	14,1	23,4	11,5	18,4
Guztira	100	100	100	100	100	100	100	100
HUTSIK DAUDEN ETXEBIZITZEI KANON (ZERGA) BAT EZARTZEA								
Erabat ados	34,3	36,7	32,5	33,6	34,9	22,9	34,2	38,5
Nahiko ados	14,4	13,1	15,5	16,4	12,9	15,5	12,7	16,9
Ez oso ados	6,2	6,5	5,9	5,8	6,5	5,7	6,6	5,7
Batere ados ez	18,9	18,7	19,1	20,8	17,5	17,3	17,5	21,7
Ez dakite edo ez dute erantzun	26,1	25,0	26,9	23,4	28,2	38,5	29,0	17,2
Guztira	100	100	100	100	100	100	100	100
(n)	504	227	277	228	276	94	213	197

5.2. Etxebide


Etxebide, Etxebizitza Zerbitzu Publikoaren baliabideari dagokionez, EAEn etxebizitza-premia duten 18 eta 34 urte bitarteko pertsona emantzipatu gabeen erdiak baino zertxobait gehiagok (% 53,5ek) zerbitzu hori ezagutzen duela adierazi du 2023an. Beste % 28,5ek adierazi du Etxebideren berri izan duela, baina ez duela zuzenean ezagutzen. Eta gainerako % 18,0k aitortu du ez duela Etxebide ezagutzen.

5.4. grafikoa
EAEn etxebizitza-premia duten emantzipatu gabeko 18 eta 34 urte bitarteko gazteen banaketa 2023an, Etxebideren ezagutza-mailaren arabera (%)



EAEn etxebizitza-premia duten emantzipatu gabeko gazteek Etxebideri buruz duten ezagutza-maila antzekoa da 2023an eta 2021ean, eta, bi urte horietan, 2019an erregistratutakoa baino handiagoa da. Hala ere, Etxebizitza Zerbitzu Publikoaren ezagutza txikiagoa da orain 2015ean edo 2017an baino.


5.5. grafikoa
EAEn etxebizitza-premia duten emantzipatu gabeko 18 eta 34 urte bitarteko gazteek Etxebideri buruz duten ezagutza-mailaren bilakaera (%)



2023an, EAEn etxebizitza-premia duten gizon gazteek emakume gazteek baino ezagutza zuzena handiagoa dute Etxebideri buruz. 25-34 urteko pertsonak ere 25 urtetik beherakoek baino gehiago ezagutzen dute zuzenean. Gainera, Etxebideren ezagutza-maila handiagoa da Bizkaiko eta Gipuzkoako gazteen artean, Arabakoaren artean baino.

5.6. grafikoa

EAEn etxebizitza-premia duten emantzipatu gabeko 18 eta 34 urte bitarteko gazteek Etxebideri buruz duten ezagutza-maila 2023an, sexuaren, adinaren eta lurralde historikoaren arabera (%)




Gainera, EAEn etxebizitza-premia eta diru-sarrera edo errenta propioak dituzten gazte emantzipatu gabek diru-sarrera propiorik ez dutenek baino neurri handiagoan ezagutzen dituzte Etxebideren baliabideak.

Etxebizitza-premiak gora egin ahala, Etxebideren ezagutzak ere gora egiten du.

5.7. grafikoa


EAEn etxebizitza-premia duten emantzipatu gabeko 18 eta 34 urte bitarteko gazteek Etxebideri buruz duten ezagutza-maila 2023an, diru-sarrera propioak izatearen eta etxebizitza eskuratzeko premia-mailaren arabera (%)



EAEn etxebizitza-premia duten eta Etxebideren baliabideak ezagutzen dituzten emantzipatu gabeko pertsonen artean, % 36,0k adierazi du gaur egun Etxebiden etxebizitza-eskatzailer gisa izena emanda dagoela, eta % 4,1ek esan du aurretik izena emanda egon zela. Guztira, 2023an, EAEn etxebizitza-premia duten gazteen erdiak baino gutxiagok erabili dute zerbitzu publiko hori.

5.8. grafikoa

EAEn etxebizitza-premia duten eta Etxebideren baliabideak ezagutzen dituzten emantzipatu gabeko 18 eta 34 urte bitarteko gazteen banaketa 2023an, zerbitzu horretan izena ematearen arabera (%)



6. EMAITZARIK AIPAGARRIENAK

Datuen oinarria 18 eta 34 urte bitarteko gazteek 2023ko Etxebizitza Beharrei eta Eskariari buruzko Inkestan emandako erantzunak dira. Inkesta hori bi urtean behin egiten du Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saileko Estatistika Organo Espezifikoak, eta Gazteen Euskal Behatokiari eman dio 18 eta 34 urte bitarteko gazteen datu-basea, azter dezan. Hauek dira azterketatik ondorioztatzen diren emaitzarik nabarmenenak:

EMANTZIPATUTAKO GAZTEEI DAGOKIENEZ,

- 2023an, emantzipazioa 30-34 urteko taldean eta atzerriko nazionalitatea dutenen artean soilik da nagusi. Emakume gazteek gizon gazteek baino emantzipazio-zifra handiagoak dituzte, baina bi kasuetan gutxiengoak dira.
- Emantzipatzen diren gazte gehienak (% 60,8) bikotekidearekin bizi dira. 30 urtetik aurrera, gora egin du bikotekidearekin edo bakarrik bizi diren gazteen ehunekoak, eta behera lagunekin bizi direnen ehunekoak.
- Gehixeago dira beren jabetzako etxebizitza batean (erabat ordainduta, hipotekarekin edo oinordetzan edo dohaintzan jasota) bizi diren 18 eta 34 urte bitarteko pertsona emantzipatuak, alokairuan bizi direnak baino: % 52,4 eta % 44,5, hurrenez hurren. Beste % 3,1 aldi baterako laga dioten etxebizitza batean bizi da. 30 urte bete baino lehen, ordea, gehiago dira alokairuan emantzipatutako gazteak beren jabetzako etxebizitza batean bizi direnak baino. Bestalde, atzerriar nazionalitateko gazte gehienak alokairuan bizi dira.
- Nolanahi ere, alokairuan bizi diren hamar gaztetik bederatzik adierazi dute benetan horrela bizi direla erosteko diru-sarrerara nahikorik eta/edo egonkorrik ez dutelako edo alokairua aldi baterako irtenbidea dela, erosi ahal izan arte. Alokairuan bizi direnen % 6,7k soilik dio oso pozik dagoela egoera horrekin (serieko ehunekorik txikiena). Hori ez da harritzekoa alokatutako etxebizitza batean emantzipatutako gazteek ordaintzen dituzten batez besteko alokairu-errentek azken urteetan izandako hazkundea kontuan hartuta.
- Alokairuan bizi diren gazteen hileko batez besteko errenta 638 eurokoa da 2023an. Batez besteko hori Euskadiko etxebizitza libreen batez besteko alokairu-errenta baino txikiagoa da (739,50 euro 2023ko abenduaren 31n, Alokairu-Merkatuaren Estatistikaren arabera).
- Eta ordainketak egiteke dituen jabetzako etxebizitza batean emantzipatutako gazteek hileroko ordaintzen duten batez besteko hipoteka-kuota 578 eurokoa da, hori ere Higiezinaren Erregistro Estatistikak argitaratzen duen batez besteko hipoteka-kuotaren azpitik (719 euro 2023an).
- Alokairuan emantzipatutako gazteek hileroko ordaintzen duten batez besteko errenta eta hipoteka dituen jabetzako etxebizitza batean emantzipatutako gazteek hilean ordaintzen duten batez besteko hipoteka-kuota alderatzean, ikusten da alokairuan bizi diren gazteek 60 euro gehiagoko gastuari aurre egin behar diotela hileroko. Nolanahi ere, alde hori murriztu egin da aurreko urteekin alderatuta, hipotekadunek ordaintzen dituzten hipoteka-kuoten zenbatekoak handitu egin direlako, seguruenik, hipoteka-maileguei aplikatu beharreko interes-tasak igo direlako.

- Alokairuan bizi diren gazte emantzipatuen etxekoen diru-sarrerak hipoteka ordaintzen ari direnenak baino txikiagoak dira. Horrez gain, alokairu-errenten batez besteko zenbatekoak hipoteka-kuotenak baino handiagoak dira, eta horrek esan nahi du alokairuan bizi diren gazteek ahalegin ekonomiko handiagoa egin behar dutela etxebizitzako hileko gastuei aurre egiteko. Alokairuan emantzipatutako gazteen % 25,0 gehiegizko esfortzu ekonomikoko egoeran dago, etxeko diru-sarreraren % 40 baino gehiago alokairuko errenta ordaintzeko erabili behar dutelako; etxebizitza jabetzan duten eta hipoteka ordaintzen ari diren gazteen kasuan, gehiegizko esfortzu ekonomikoko egoeran daudenen ehunekoa askoz txikiagoa da (% 3,7), baina kontuan izan behar da banku-erakundeek hipoteka-mailegu bat emateko aukera murrizten dietela beren ustez gehiegizko esfortzua edo gainzorpetzea izateko arriskuan daudenei, eta, beraz, ehuneko txiki horren arrazoia izan daiteke, neurri handi batean, diru-sarrera eskasak edota ezegonkorra ditzuten pertsokeez dutela etxebizitza jabetzan eskuratzen eta, emantzipatu nahi izanez gero, alokairura jo behar dutela.
- Etxebizitza ordaintzeko gehiegizko esfortzu ekonomikoko egoeran dauden gazte emantzipatuen ehunekoa jaitsi egin da aurreko urteekin alderatuta. Emantzipatutako gazteen ehunekoak ere behera egin duela kontuan hartzen badugu, pentsa daiteke gehiegizko esfortzuan egoteko arriskuan egongo lirartekeen pertsona batzuk ez direla emantzipatzera iristen, eta aurreko urteetan gehiegizko esfortzuan zeuden beste pertsona batzuk, agian, familiaren etxera itzuli direla modu autonomoan bizitzeak dakartzan gastuei aurre egin ezin izateagatik.
- Emantzipatutako gazteen % 12,1 etxebizitza babestu batean bizi da, jabetzan edo alokairuan. Etxebizitza babestu batean bizi diren gazteen proportziorik handiena Araban dago (% 22,0), eta txikiena Gipuzkoan (% 7,0).
- Emantzipatutako gazteak bigarren eskuko pisuetan bizi dira batez ere, eta pisu horien erdiek 50 urte baino gehiago dituzte. Etxebizitza horien batez besteko tamaina 82 metro karratukoa da. Kasu gehienetan igogailua dute, baina trastelekua duten etxebizitzak erdiak baino gutxiago dira, eta are gutxiago garajea dutenak.
- Emantzipatutako gazte gehienak pozik daude beren etxebizitzarekin, eta are gehiago beren auzoarekin edo bizilekuaren ingurunearekin. Nolanahi ere, gehienek arazoren bat salatzen dute auzoan, batez ere aparkaleku falta.

EMANTZIPATU GABEKO GAZTEEI DAGOKIENEZ,

- Gaur egun gurasoekin bizi diren gazteen laurdenak (% 24,2) bere kontura bizi izan dira noizbait. % 4,2k dio emantzipatuta egon zela, eta gainerako % 20,0k familiaren etxetik kanpo bizi izan dela ikasketak edo noizbehinkako lanak direla medio.
- 2023an, emantzipatu gabeko pertsonen % 36,2k dio etxebizitza bat beharko lukeela. Adinak gora egin ahala, etxebizitza-premiak ere gora egiten du, eta 25 urtetik aurrera emantzipatu gabeko pertsonen erdiak baino gehiagok diote etxebizitza behar dutela. Pertsona horien % 95ek baino gehiagok adierazi dute etxebizitza hori Euskal Autonomia Erkidegoan (EAE) egotea beharko luketela. Zifra absolutuetan, 2023an, 18 eta 34 urte bitarteko 82.000 pertsona emantzipatu gabek adierazi dute EAEn etxebizitza bat behar dutela.
- EAEn etxebizitza bat behar duten emantzipatu gabeko gazteen ia herenak (% 31,6) etxebizitza horren premia handia duela dio. Eta erdiek baino gehixeagok (% 54,3) diote urtebete baino gehiago daramatela etxebizitza-premian. 25 eta 34 urte bitarteko pertsonen premia-maila eta premian daramaten denbora 18-24 urteko gazteenak baino handiagoak dira.
- Beren lehentasunei dagokienez, Euskadin etxebizitza-premia duten 18 eta 34 urte bitarteko pertsona emantzipatu gabeen % 61,2k adierazi du gustatuko litzaiokeela etxebizitza hori gaur egun bizi den udalerrian egotea. Baina, lehentasun hori izan arren, pertsona horien erdiak udalerriz aldatzeko prest leudeke, baldin eta, horrela, beren beharretara egokitutako ezaugarriak eta prezioa dituen etxebizitza bat eskuratuko balute.
- Dituzten aukera ekonomikoak kontuan hartuta, gehiago dira erosteko asmoa dutenak (% 36,3) alokatzea aurreikusten dutenak baino (% 30,2). Beste aukera bat erosteko aukera duen alokairua litzateke (% 16,5), eta % 16,9ri berdin litzaioke. Adinak gora egin ahala, erosketa-aurreikuspenak ere gora egiten du. 2015etik 2023ra bitarteko datuen bilakaerak erakusten du azken urte honetan erregistratu dela erosteko aurreikuspena dutenen ehunekorik handiena eta serie osoko alokairu-aurreikuspenaren ehunekorik txikiena.
- EAEn etxebizitza-premia duten emantzipatu gabeko gazteen ia herenak (% 31,9) bi urteko epean emantzipatzea aurreikusten du. Diru-sarrerak erabakigarriak dira bi urteko epean emantzipatzeko aurreikuspenetan, eta etxebizitza-premia duten gazte guztiek ez dituzte diru-sarrera edo errenta propioak, zehazki, % 71,9k ditu diru-sarrera propioak 2023an.
- Hala ere, diru-sarrera propioak dituzten gazteen % 18,3k soilik uste du diru-sarrera horiek egonkorrak eta nahikoak direla etxebizitza bat eskuratu ahal izateko. Gainerakoek adierazi dute ez direla nahikoak, nahikoak izan arren ezegonkorrak direla edo ez direla nahikoak ezta egonkorrak ere. Zifra absolutuetan, 18 eta 34 urte bitarteko emantzipatu gabeko 10.800 pertsona daude, EAEn etxebizitza-premia dutenak eta emantzipatzeko laguntza publikorik behar ez izateko diru-sarrera nahikoak eta egonkorrak dituztenak. 2019tik 2023ra behera egin du Euskadin etxebizitza bat eskuratzeko diru-sarrera nahikoak eta egonkorrak dituzten gazteen kopuruak.
- Etxebizitza-premia eta diru-sarrera propioak dituztenek (diru-sarrera horiek nahikoak eta/edo egonkorrak izan ala ez) adierazi dute, 2023an, batez beste, hilean 568 euro erabil ditzaketela alokairu-errenta edo hipoteka-kuota ordaintzeko, aurreko urteetan baino gehiago (orain arte, hileko batez besteko gastu onargarria 500 eurotik beherakoa zen).
- Baina hileko batez besteko gastu onargarri hori Euskadiko alokairu libreko batez besteko errenten azpitik dago (739,50 euro, 2023ko abenduaren 31n, Alokairu-Merkatuaren Estatistikaren arabera), baita hileko batez besteko hipoteka-kuotaren azpitik ere, 2023ko azken hiruhilekoan 719,18 eurokoa baitzen, Euskal Autonomia Erkidegoko Erregistratzaileen eta Jabetza Erregistroen Elkargoaren Higiezinaren Erregistro Estatistikaren arabera.

- EAEn etxebizitza-premia eta diru-sarrera propioak dituzten emantzipatu gabeko gazte gehienek uste dute etxebizitza gutxi daudela, edo etxebizitza bakar bat ere ez, beren beharretara eta aukera ekonomikoetara egokitzen dena (% 91,0).
- Etxebizitzaren arazoa konpontzeko har daitezkeen neurrien zerrenda baten aurrean, EAEn etxebizitza-premia duten gazte emantzipatugabeek gehien babesten dituzten biak hauexek dira: etxebizitza babestu gehiago egitea (% 42,9k aipatzen du) eta errenta merkeagoekin alokairu-erregimena sustatzea (% 37,5ek aukeratu du). Gainera, % 28,9k uste du etxebizitza erosteko laguntza gehiago eman beharko liratekeela, eta % 22,7k hipoteka-maileguren interes-tasak jaitsi beharko liratekeela. Gainerako neurri bakoitza % 15ek baino gutxiagok aipatu dute. Zehaztu behar da pertsona bakoitzak gehienez bi aukera adieraz zitzakeela. Aurreko urteekin alderatuta, behera egin du errenta merkeagoak dituen alokairu-erregimena sustatzeak, lurzorua-ren prezioa merkatzeak edo hutsik dauden pisuak merkatura aterarazteak; aitzitik, gora egin du hipoteka-kredituen interes-tasak jaitsi beharko liratekeela diotenen ehunekoak.
- EAEn etxebizitza-premia duten emantzipatu gabeko pertsona gehienak ados daude eraikitzen diren etxebizitza babestu gehienak alokairuan egitearekin (% 62,2 erabat edo nahiko ados daude horrekin). Eta erdia baino zertxobait gutxiago (% 48,7) ados dago etxebizitza hutsei kanon edo zerga bat ezartzearekin. Bi neurriek 2019an baino jarraitzaile gutxiago dituzte 2023an (orduan, % 73,6 ados zegoen etxebizitza babestu gehienak alokairuzkoak izatearekin eta % 62,1 etxebizitza hutsei kanon bat jartzearekin).
- 25 urtetik beherako gazteek, baliabide ekonomiko gutxiago izaten dituztenek, aurreikusten dute gehien beren etorkizuneko etxebizitza alokatzea, eta gehien eskatzen dute errenta merkeagoak dituen alokairu-erregimena sustatzea eta babestutako etxebizitza gehienak alokairuan izatea.
- Azkenik, EAEn etxebizitza-premia duten pertsona emantzipatu gabeen erdiek baino gehixeagok ezagutzen du Etxebide, Etxebizitza Zerbitzu Publikoa (% 53,5). Beste % 28,5ek adierazi du zerbait entzun duela zerbitzu horri buruz, baina ez duela zuzenean ezagutzen. Ezagutzak gora egiten du adinarekin eta etxebizitza-premiaren mailarekin batera. Eta ezagutzen dutenen heren batek baino gehixeagok diote gaur egun Etxebiden, etxebizitza-eskatzaile gisa, izena emanda daudela.

ONDORIOAK

30 urte bete aurretik, emantzipazioa urria da, eta, edonola ere, zaila da edozein adinetan, lan egonkorrik ez badago eta soldata nahikoa ez bada, bai etxebizitza ordaintzeko, bai mantenuak dakartzan gastuei aurre egiteko. Higiezinaren merkatu libreko etxebizitza-gastuak handitu egin dira azken urteotan, alokairu-errentak eta hipoteka-maileguei aplikatu beharreko interes-tasak igo egin baitira. Eta KPlaren igoeraren ondorioz, gero eta zailagoa da modu independentean bizitzea, batez ere soldaten igoerek ondasunen eta zerbitzuen prezioen progresio bera izan ez dutelako.

Euskadiko gazteek, ahal duten neurrian, emantzipazio tradizionalaren erduei jarraitzen diete: jabetzako etxebizitzan eta bikotekidearekin. Oro har, alokairuan bizi diren pertsonak dira urte askoan hipoteka-mailegu bat ordaintzeko baliabide ekonomiko eta/edo lan-egonkortasun gutxien dutenak, eta, ondorioz, ez dute erosteko asmorik edo banku-erakundeek, kaudimen ezagatik, ez diete hipoteka-mailegurik ematen. Egoera horretan daude 30 urtetik beherakoak eta, batez ere, atzerriko nazionalitatea duten gazteak.

Baliabide ekonomiko gutxiago izan arren, alokairuan bizi diren gazteek jabetzan dutenek baino gastu handiagoak dituzte, alokairu-errenta ordaintzeak hileko hipoteka-kuota ordaintzeak baino gastu handiagoa baitakar. Nolanahi ere, hipoteka-maileguen interes-tasen igoeraren ondorioz, hipoteka-kuoten zenbatekoak handitu egin dira, eta alokairuaren eta hipotekaren gastuen arteko aldea murriztu egin da; baina, 2019an, 2021ean eta 2023an ere, garestiagoa da alokairu-errenta ordaintzea hipoteka-kuota ordaintzea baino. Ez da harritzekoa, beraz, alokairuan bizi direnen gogobetetzeak behera egiten jarraitzea eta emantzipatu gabeko pertsonen artean erosteko lehentasunak gora egitea.

18 eta 34 urte bitarteko emantzipatu gabeko pertsonen heren batek baino gehiagok diote etxebizitza bat behar dutela, ahal bada, bizi diren udalerrri berean, familiarengandik eta lagunengandik gertu. Etxebizitzaren kokapena aukeratzeko orduan, zirkulu sozialaren hurbiltasuna garrantzitsuagoa da lanarekiko hurbiltasuna baino, azken finean, urteetan zehar lana alda baitaiteke. Baina etxebizitza behar duten pertsona guztiek ez dute diru-sarrerarik, eta, diru-sarrera horiek izanda ere, gutxiengoa dira diru-sarrera nahikoak eta egonkorrak dituztenak, kanpoko laguntzarik gabe (gurasoena edo laguntza publikoak) emantzipatu ahal izateko.

Emantzipatu gabeko gazteek etxebizitza babestu gehiago eskatzen dituzte (eta gehienek etxebizitza babestu horiek alokairuzkoak izatea onartuko lukete), bai eta alokairu-errenta eskuragarriagoak ere; hala ere, badirudi emantzipatu gabeko gazteak nahiko eszeptiko daudela alokairu-merkatuaren bilakaerari eta alokairu-errenten zenbatekoak mugatzeari dagokienez.

Oraindik ikusteke dago gazteen emantzipaziorako laguntza-programa publikoak, hala nola, Emantzipa eta Gaztelagun, ezartzeak (eta horien aldaketek) duen eragina, bai eta gazte emantzipatuen kopuruan eta bizi-baldintzetan duten inpaktua ere.

